

# ESKU-LIBURUAren hiztegi aldaketak: 1. mailebuak\*

BLANKA URGELL  
E.H.U.

## ABSTRACT

This essay in the borrowed words eliminated by the Bizkaian writer Añibarro in the second edition of his work *Esku-Liburua* («Handbook») shows us an author engaged in a careful process of lexical selection, designed to limit the introduction of borrowed words but never to eradicate them, and in this way following precisely the directions of his master Larramendi. Moreover, the evident reduction in borrowed words in no way implies any increase in the appearance of neologisms; on the contrary, it appears that Añibarro gave top priority to the needs of his less learned readers, employing compound words and derivations with moderation, and preferring to express more or less technical terms with simple and common words (c.f. Urgell 1985).

The basic works of reference used for this essay are the *Diccionario Trilingüe* by P. Larramendi, and *Voces Bascongadas* by Añibarro himself, the aim being to make any judgments on the borrowings as objective as possible by applying the criteria of the period in question, and to contrast the solutions adopted in the *Esku-Liburua* with the proposals to be found in the dictionaries which the author had at his disposal.

## Sarrera orokorra

1821eko bigarren edizioan Añibarroren *Esku-liburua* arras itxuraldaturik dakuskegu, 1802koarekin erka bageneza: lehendabiziko orrieta-rik egilea era askotako ikutu franko egina dela nabarmena da, eta ikutu haien artean hiztegiari dagozkionak ez dira, izan ere, urrienak; aitzitik, edukia mantendu duenean ere esamoldeak hain dira ezberdinak non, liburua berriz kopiatu ezik, aldaketa guztien kontu ematea, orriz orri, lerroz lerro zein hitzez hitz, ezinezkoa genukeen.

(\*) Lan hau Eusko Jaurlearitzaren diru laguntzarekin egiten ari naizen ikerketaren fruitu da. Bestalde, 1986ko irailaren 30ean Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean aurkeztu nuen tesinaren zati baten berridazketa (orduan baino zaindu eta luzeagoa, eperik gabe ibiltzeak eman didan lasaitasunez) da. Han (eta baita, laburxeago, URGELL 1985-n) batzen dira hemen jakintzat emango ditugun oinarritzko kontu zenbait, hots, *Esku-liburuaren* edizioen arteko aldaketen arazoa orokorki. Grafi aldaketak aurreko alean (ASJU XXI-2) eta orduko lanaren ondorioak E.H.U.aren 1986ko Udako Ikastaroen Agirietan agertzeko dira. Azkenik, tesinaren zuzendariari eta epaimahaiko izan ziren Koldo Mitxelena eta Patxi Goenaga irakasleei beren ohar baliotsuez lana hornitzeagatik eskerririk beroenak; beste horrenbeste berridazketa honen suspertzaile eta begiratzzaile zorrotz izan den Joseba Andoni Lakarrari.

Bestalde, lan itzel horrek ez luke egiatan esanahi handirik: *idazle aldaerak*, Roncagliak (1975:44) gogoratzen digunez, egilea konposagintzan bertan harrapatzeko parada ematen digun lanabes txit balio-tsua dira. Hau da, idazle batek zirriboroen gainean, azken zirriborrotik argitaratura, edizio batetik bestera edo bestela egin dituen aldaketek (gorde zaizkigun neurrian) ez erabat baina ahalik eta gehien erakusten digute nola aritu den bere obra borobiltzen, zeintzu izan diren eman dituen pausuak eta norantz doazen; beraz, ahalik eta gehien garamatzate idatziaren ardatzerantz, gutxienez bera bezain garrantzitsu diren egilearen erizpide eta jokamoldeetarantz<sup>1</sup>.

Gure gaiaz zehazkiago, grafian, fonetikan, morfologian eta sintasian ikusitakoagatik aldeztu aurretik badakigu *Esku-liburuaren* 1821eko birmoldaketak bere idazkera antolatzean —eta ez bedi ahaztu literatur bizkaieraren sorreraz ari garela— Añibarrok aurkitu arazoez eta eman zizkien irtenbideez hitzegiten digula beste ezerk baino hobeto, aldaketak ez bait dira 1802ko edizioa zuzentzerakoan hartu behin behineko erabaki solteren ondorioa, erizpide orokor batzuei zor zaizkienak baik. Honela, idazle bizkaitar honek bere idatzia berrartuz eskeini zizkigun aztarnei esker, idaz-gaiak —grafemak, aldaera morfofonetikoak etab.— zorroztu, batu eta aberasteari ekin ziola jakin ahal izan dugu<sup>2</sup>.

Hiztegi mailan ere antzerako zerbeit itxaron dezakegulako uste osoan, *inventarium* luze bezain aspergarri batek ez gintuzke ezertan ere Añibarroren asmo eta eginetara hurbilduko.

Hau gogoan izaki, gure aldetik esanguratsu izan daitezkeen xehe-tasun guztiak bildu ditugu: lehen eta behin, hemendik aurrera A deituko dugun 1802ko ediziotik zeharo desagertu edo 1821ean (B-n) lehen-dabizikoz agertu den hitz oro, eta hauetan oinarritzen da gehienbat gure ikerketa.

Ohizko sailkapenean —mailebuak, elkarteak, eratorriak eta «jatorrak»— antolatu ditugu, multzo bakoitzaren aurrean jarrera ezberdin bana suposatu behar zaiolako Añibarrori, ikusiko dugunez.

Lau sail hauetarik bi (mailebuak eta eratorriak) astiroago aztertuko ditugu, Añibarroren pentsakera ezagutzeko daukaten garrantziaren gatik; aukera, nolana ere, ez da gehiegi azal beharrekoa: mailebuak sekula betiko eztabaida gai diren bitartean (eta gogora bedi orduan Larramendiren etimologia sonatuak ere tarte direla), eratorrien artean

(1) Ideia guzti hauek ez dira hipotesi landugabeen munduan gelditzen, dagoeneko filologiak ongi dastatu bait ditu ikerbide honen fruitu oparoak. Libururik esanguratsuen, seguru asko, Gianfranco CONTINIren *Varianti e altra linguistica* (Giulio Einaudi editore, Torino 1970) saio-bilduma erraldoia da; bertan, esate baterako, Petrarca, Manzoni, Leopardi, Mallarmé eta Prousten aldaketen analisi eta interpretapenak ikus ditzake irakurle interesatuak. Hispanisten lanen artean Stephan GILMANen *La Celestina: Arte y estructura* (Taurus, Madrid 1974) aipa dezakegu, *Celestinaren* 1502ko edizioaren interpolazioen ikerketa sakonarekin.

(2) Aurrerapausu honen hildotik, literatur bizkaieraren hastapenetako Arratiko eskola, Añibarren eskola, arratieraren erabilia baino jakinaren gainean bilatutako idazkera joriago eta orokorrago baten sortzailea dela ageri da. Ideia honen sendogarria bait da, ezin ahaztu *Esku-liburuaren* bi idazketen artean ekoiztu bide ziren beste liburuetan (*Misionari euskalduna*, *Nekea arindurik* etabarretan) batetik bestera dagoen izugarritzko jauzia urratsez urrats gertatu zela baieztatzeko adineko oinarri antzeman uste dugula (cf. URGELL 1987b). Lan honetan zehar ez dugu gai honi buruzko aipamen berzirik egingo, baina kontutan hartuko dugu, nahita nahi ez, *Esku-liburuaren* aldaketen ikerketa ahalik eta zehatzenak noizbait gainerakoetan gertatutako hobeki sakontzeko oin emango digula.

kokatzen dira, salbuespen gutxirekin, oraindik behar bezala ezagutzen ez ditugun *Diccionario Trilingüe*eko hitzberriak<sup>3</sup>. Arrazoiok direla medio, (des-)agertutakoez gain agerraldi kopurua laburturik edo gehiturik dutenak ere kontutan hartuko dira maiz.

Ikerketa honek bi alderdi ditu:

1. Hitzez hitz: zein den edizio bateko hitz baten ordaina beste edizioan<sup>4</sup>; hortarako, agerraldi guztiak arakatzen dira<sup>5</sup>. Interesgarri deritzogun bakoitzean aldaketan nondik norakoa erakusten duten taulak erantsi ditugu.

2. Orokorki: zeintzuk diren aldaketek nabarmentzen dituzten jokaera, usadio eta asmoak, eta zerk eragin dituen teori mailan. Xede honekin, orduko giroez dakiguna biltzen duen sarrera bana, gehi ondorio sorta batzu jarri diogu hitz sail bakoitzari.

Era berean, bi dira azterketarako erabiliko ditugun tresnak: Larremendiren *Diccionario Trilingüe* (DT) eta Añibarroren *Voces bascongadas* (VB), hain zuzen. Abantail ugarien aldamenean tresnok argitu gabe-ko auzitan sartzan gaituztela gaztigatu beharrean gaude: Añibarroren hiztegiak sarri Larremendirena duela iturri orok dakien arren, noiz bai eta noiz ez (eta zergatik) zehazten digun azterketarik ez da egin orain artean, esaterako<sup>5 bis</sup>; beraz, alde honetatik bataren eta bestearen erreferentzia ematera mugatu gara, bion arteko erlazioen gai interesgarria alboratuz.

Hurbilgotik dagokigu, ostera, aldaketetan zerikusirik izan ote duten erabakitzea, baina horretarako aurretiaz Añibarroren bilakaera —idaz-

(3) Aurrerago honetaz luzatuko garen arren, jadanik hemendik aitortu nahi dugu ikuspundu hau azken urteotan MITXELENAK (1984), LAKARRA (1985 a, b, c eta 1986) eta SARASOLAK (1986) ezarri dutena dela: hara bidaltzen dugu irakurla, beraz, bertan aski azaldu gabe geldi daitezkeen kontuetarako. Esan gabe doa, lan honek beraien esanetan oinarritzeaz gain, ireki duten bidea ikerketaren bidez urratu nahi duela.

(4) Zeragina mugatzerakoan, beste hainbat arazorekin batera 1827ko hirugarren edizioarena ere kampo utzi dugu. Teknikoki, Añibarrok paratu zuen azken edizio hau ez da bigarrenaren birmoldaketa, egile-aldaera batzu baino aurkezten ez bait ditu: hau da, 1821lekorako eskuzko orijinal bat nahitaez suposatutako behar dugun bitartean, honetarako aski izan dezakegu, behar bada, aurreko edizioaren ale gainetik zuzendu batekin (gehi inprimagilearen esku ez beti zuzena) aldaketak nola egin diren ulertzeko. Berezitasun honi gainera bekio ez dirudiela 1821-1827 tarteko Añibarroren beste obrarik dugunik (cf. 2.oharra).

(5) Sarri xamar, estilo aldaketa baten ondorioz edizio batean edo bestean ordainik ez duen hitz batez edo hitz baten agerraldi batez mintzatu beharko dugu; gertakari hori Ø batez markatuko dugu. Beste alde batetik, URGELL (1985:95)n, B-ko atal zenbait berri sartuak edo zeharo eraberrituak zirela ohartu genuen; beraz, ordain-eza holakoren batean gertatzen denean, eta askotan hala da, hutsune zeinuaren gibelean, parentesi artean, hauetariko laburdura bat jarri ohi dugu: o. (= A-ko 139-169 eta 181-211.or.ko *oraciñoak* eta B-ko beren kideak), X.m (= Xgarren mandamentua), s. (= *Sartaurrea*) eta n. (= A-n parearik ez daukaten *Yesucristo gueure Yaunaren nekean ganeco gogarte chito samurrac* B214-223.or. eta *Andrana Mariaren nekeac* B223-227.or.).

(5 bis) Cf. VILLASANTEREN edizioaren aurkezpenean: «La influencia que la obra del P. Larremendi ha ejercido sobre el diccionario del P. Añibarro es innegable y considerable. Así, por ejemplo, cuando por *amenidad* se nos da *icusterra*, o por *anatomía ilicusquera*, por *anales eragoac*, por *perfección obetante*, por *fin*, *intencion*: *ecaia*, etc., es claro que tales voces son sencillamente tomadas del P. Larremendi y no han sido nunca usuales (...). Nos sorprende también la cantidad de voces castellanas que se nos dan por vascas. Muchas veces esto se deberá a que en realidad eran usuales en el vascuence corriente; pero otras veces ello obedece, sin duda, a prejuicios etimológicos bebidos en el P. Larremendi» (18.or.). Hemendik, eta oro har Villasantek egin deskribaketatik, atera daitezkeen irudia honako hau da: VB berez hitz jator bilduma izaki, Añibarrok berak bildu omen bait zituen gehienak herriaren ahotik, bakanka DTaren arrastoak dituela, hitz zailak, hitz bereziak itzultzeko hara jo zuelako, besterik ezean, egileak. Gure lanetan zehar maiz nabaritu ditugun bi hiztegien arteko berdintasunek arazo honek eraketa-lana eskatzen duela pentsatzera eramán gaituzte eta baita lana has-tera ere. Nahiz ondorioak emateko goizegi den, Larremendiren eta Añibarroren hiztegien arteko adostasunak uste baino gehiago eta desadostasunak interesgarriago direla aurrera dezakegu.

lan guztiak eta haien denborazko jarria— ezagutu beharko dugu, ene ustez<sup>6</sup>; halere, *Esku-liburuaren* argitan abiaburu gisako hipotesi zenbait eraikiko ditugu, VBen konposagintza dataz dakigunak denboraren aldetik A-rekin lotzera garamatzala ahanzi gabe<sup>7</sup>.

## 1. Mailebuak

Aski ezaguna da dagoeneko hitz hauei buruzko Larramendiren jarrrera<sup>8</sup>; labur bilduz, badirudi DTaren egileak landatu zuela garbizaletasuna Hegoaldeko euskal literaturan, aurreko idazleen axolagabekeria arbuatuz erdiko bidetik jo bait zuen, euskararentzat behar adineko mailebu —ez larregi, ez gutxiegi— onartu nahirik. Bere politika honetaz jabetzeko bi lekutara joan behar dugu gutxienez: batetik, Mendi-bururi egin zion gutunera<sup>8 bis</sup> eta, bestetik, DTra bertara zuzenean. Lehendabizikoaren hitz ezin garbiagoei bigarrenaren lekukotasun praktikoak gaineratu behar zaizkie: DTan, besteak beste, mailebu mordoxka dago onarturik, baita bestelako ordainen aldamenen ere; are gehiago, askotxori euskal etorkia aurkitu nahi izan zion, aintzineko euskararen zabalkundeaz zuen teoriaren alde ezeze euskal idazleek ere lasaitasunez erabil zitzen.

Ideion garrantzia bere osotasunean bakarrik larramenditar bakoitzarengan izan zuten isladapena neurtu ondoren ulertu ahalko dugu; azalean, behinik behin, garbitasunaren kezka biztu zuela zalantzarik ez, ikusirik liburu gehienetako hitzaurreetan —baita hiztegi edo hizkuntza garbiari jaramoten ez zioten idazle askorenetan ere<sup>9</sup>— gai honetaz zerbait esaten dela, zeinek praktikotasunaren izenean garbitasuna albora utziko duela aitortzeko, zeinek garaiko egoeran garbitasun ideala lortzeko *imposibilitiaz* hitzegiteko; guztiek, baina, Larramendik ezarri gorengo eredia gogoan dutelarik. Euskararen garbia, beraz, modatan imini zen eta ezin jakingarriago dateke honezkeroz noraino lotu zitzaizkion —eta zeintzu, eta nola— idazterakoan, neurririk apalenean izanda ere.

Arinki marraztutako testuinguru honetan kokatzen da eta honen

(6) Cf. 2.oharra eta bertako bibliografia.

(7) Cf. VILLASANTE (1983), non, ezagutzera ematen duen Añibarroren gutun bati esker, *Gramática bascongada* 1801ean bukatzeaz zegoela erakusten bait da. Jakina denez, gramatika honen hitzaurrean VB (hala nola Axularren itzulpena) jadanik egina dela esaten digu Añibarrak. Ondorioz, kontrako arazoirik ezagutu arte hitzaurrea gramatikaren gehiengoarekin 1801 inguruan idatzi zuela sinisturik, VB XVIII. mende bukaerakoa dela pentsatu behar dugu eta ez, VILLASANTEk (1963:17) gutuna eskuartearen izan baino lehen suposatu zuenez, 1820 ingurukoa, Añibarroren azken urteetako, alegia. Halere, nire ustez hiztegi honek beranduagoko eransketak ditu (cf. URGELL 1987b), egilea noizbehinka bertara itzulia bailitz.

(8) Cf. 3.oharra.

(8 bis) LAKARRAK (1985b) bildu Larramendiren segiziokei erantsi behar diegu eta, Iztuarekin batera, gutun horren garrantziaz jabetu eta gidatzen erabili zutenen artean kokatu Mogel ere: «Batzuec dituzi, dio Aita Larramendi euscaldunen maisuac, gure eusqueran nai ez luqueenac beste itzcundeatic itzcho bat ere. Eusquerari erachi zaizca erdaldunetic itz ez guchi; baña adituaz ta oituaz, eusqueracoac bezain ongui aditzen diranac; ta oyec utzi bear eztitugu, ta bear bada noiz edo berriz obeco da onelacoac usatzea eusqueracoac baño, batezere Eliz gaucetan ta gure animen salvacioari dagozten eguicarietan. Onela itz eguiten digu Maisu icen andico onec» (*Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean Eracasteac, Irneco Libruguille Ezquerreren Atargunaren Echean: 1800. urtean, xi-xii.or.*).

(9) Oso adierazgarria da SARASOLAK (1986:208-209) eskeintzen duen aipamen sorta, baita bertatik ateratzen dituen ondorioak ere.

arabera neurtu behar dugu *Esku-liburuaren* edizioen artean jazo zen mailebu mugimendua: orotara 130 (des-)agertu dira A-tik B-ra, Añibarroren jarrera eta are bere praxia zein izan zen ezagutzeko adina, seguruenik. Hurren doazen orrietan mailebu desagertu, agertu berri, eskastu eta ugariagotutakoen kontu emango da banan banan, zeren ordeztu diren edo zerk ordeztu dituen zehaztuaz eta, datuok zilegi egiten diguten heinean, aldaketan ikusitako joerak ohartuaz.

### 1.1. *Mailebu desagertuak*

130 mailebu horietarik 85 (% 65'4) ezabatu dira bigarrenaz argitaratzeko Añibarrok egin zuen zuzenketaren ondorioz: B-n erantsi mailebu berri bakoitzagatik ia bi kendu zituen A-tik, alegia. Mailebu desagertu gehienek agerraldi bat baino gehiago dutela (badira seitik gora dituztenak ere) kontutan hartzen baldin bada, 2/1 proportzio hori oraindik garbiago makurtzen da A-ko kenketaren alde, B-n erantsitakoen gehiengoak agerraldi bakarra bait du (ik. 1.4. «Mailebu agertu berriak»). Gainera, EL-tik behin betiko jaurtikiriko 85 hitzei agerraldi batetik gora —gehienetan euskal kide batek ordezkaturik— galtzen duten beste 30 bat erantsi behar zaizkie (ik. 1.2. «Mailebu gutxituak»).

Zenbakiok, bistan da, hiztegi garbiketa sakona gertatu dela pentsatzera garamatzate. Alabaina, ezin ahaztu oraindik mailebu asko mugitu gabe igaro dela A-tik B-ra eta are egileak berri zenbait eranstekeko oportoparik ez zuela izan. Ikuspundu honetatik, aldaketa bera baino askoz gehiago zein mailebu moztan jazo den eta zerekin ordezkatu dituen (Larramendiren hitzberriekin, agian?) interesatzen zaigu.

Añibarrok eskuartearen zituen bi hiztegiek garbiketaren nolakoa uleratzeko bide eman diezaiguketela suposatu dugu; VB hautatu dugu, bada, bertan mailebaturik ez dauden hitzak isolatzeko, halakoak berez ez bait dirudi zilegi zitezkeenik euskal idatzi batean, hiztegiegilearen berarenetan gutxiago. Haatik, honela bahetzean anitz onarturik badaudela hauteman genuen, noizbait delako hitz bat euskaraz adierazteko aukera bakarizatzen harrigarriro, baina usuago alboan beste kideren bat dutelarik. VB erabiltzeak eskeintzen dizkigun bereizkuntza hauen abantail nagusia zera da, kasu gehienak ez gure aurreritiz edo intuizioz, ezpada egileak berak ezarri neurbideen arabera epaitu ahalko ditugula.

#### 1.1.1. *VBen ez onartuak*

Beren erdal jatorriak euskarara bihurtzeko ematen dituen itzulpenen artean ez izatea frogatzen aski bide da euskal hitzatzat ez zizutela, hain zuzen, ziurtasun handiarekin susmatzeko; ez mailebu, beraz, erdarakadak baizik genituzke talde honetakoak Añibarroren ustez: A-n azaltzea bakarrik lehendabiziko edizio horren ardura eskasagoaz mintzo daiteke.

85 hitz ezabatuetarik 17 (%20) ez dira sartu dagozkien VBeko sarreteran; kopuru altuxea ene eritziz<sup>10</sup>.

- AGONIA: «c. iltzeracoa, azqueneco ordua». A94 *eriotzaco larritasun ta agonian*: B103 *eriotzaco larri-unetan*; A220 *agonia ta larritasuna*: B234 *biotz larria*; A221 *agoniaco peneen artean*: B234 *larriric*.
- DESEO: (DT). «b. guraria, naigura; g.n. naiera, naicunde». A135 *gogoz, deseoz*: B147 *gogoz*.
- ENBAJADA: «c. bidal, o biralqueta». A217 *Angueru batec ecarri eutsun Cerutic embajadea*: B231 *Ceruetaric ecarri eutsun Angueruac albiste*.
- ENKARNAZIÑO: «Encarnar, narse: c. araguitu». A231 *Cristo Zure Semearen Encarnaciñoa*: B243 *Cristo zure Semearen guizon eguitea*.
- ENPEÑU: «Empeños, valedores: c. bitartecoac, artecoac». A31 *ez balioco daben empeñuric*: B36 *ez berba eguin leikean bitartecoric*.
- ETERNIDADE: «c. betiraunea, betico irautea, beti dirauana». A26 *betirauna edo eternidadea*: B31 *andico aldeco betico bicitzea*; A59 *O betiraun guztico eternidadea!*: B67 *O beti iraun bearco dozun nekea!*; A66 *Eternidade edo Betirauná*: B75 *Beti iraun bearra*; A67 *eternidade edo betiraute guztico echedán*: B76 *betico izango dabeen etsean*; A71 *eternidadea*: B80 *betico iraun bearren ganecuari*; A83 *betiraunde edo eternidadeac*: B93 *andico aldeco betico izateac*.
- HIMNO: «c. cantona, docanta». A171 *Hymno edo Cantonac*: B181 *Cant-onac*.
- INOZENTE: «c. erru baguea; c. gachic baguea». A118 *Bildots errubaguea! Azuri inocentea!*: B115 *bildots errubaguea*.
- INOZENZIA: «c. erru baguetasuna». A63 *Inocencia... au da: Errubaguetasuna*: B72 *becatu-eza*; A63 *inocencia ta garbitasun ederrac*: B72 *arimaco garbitasun ederrac*; A64 *Inocencia galdu dot*: B73 *Arimaco garbitasuna galdu izan dot*.
- KOLUNA: «c. abea, aguea; de piedra: c. metarria; de madera: metola». A221 *Estu-billosturic Colunan azotadu ebanean*: B234 *Yesusen azote icaragarriac*.
- KONZEZIÑO: «c. sorrera, sortuera, sortzea». A54 *Conceciño garbia*: B62 *sortuera garbiaren*.
- LABATORIO: «c. garbiteguia, icuztoquia; n. chautoquia, teguia». A105 *Lavatorio edo garbiquerea*: B113 *Escuac garbieteac*.
- MISERIKORDIA: (DT). «b.g. erruquia, quitasuna; g.n. urriquitasuna, urricamentua». A116 *Misericordia, Jauna! Erruquia nigaz*: B123 *Errukia, Yauna, errukia nigaz*; A151 *Ceure misericordiazco ateac*: B166 *ceure errukiaren ateac*; A227 *Jauna, misericordia. Cristo, misericordia. Jauna, misericordia*: B239 *Yauna, errukia. Cristo, errukia. Yauna, errukia*.
- OFIZIO: «c. equintza, languitea; b. bearguitzea». A79 *Apostoluen oficioá*: B89 *Apostoluen cereguin ederra*.
- PAGATU: (DT). «quitutu, quitu eguin». A131 *zucen pagatu badozuz*: B139 *artez eguin ezpadozuz*; A203 *paguetan dozuzan*: B205 *atera bear dozuzan*.
- SAGRADU: «c. donetia, donduna». A111 *gorputz sagradu ori*: B118 *gorputz eder ori*.

(10) Sarreren barneko egituraz zerbait esateari komenigarria deritzot: Hitz batek iruskin zabalagoa eskatzen duenean izan ezik, lehendabizi DTren lekukotasuna ematen da; lekukotasun hau delako hitza bertan onarturik dagoen —“(DT)”— ala ez (eta orduan ez da ezer jartzen) zehaztera mugatzen da. Bigarren, VBeko sarrerako informazioa, komatxo artean. Hirugarren, agerraldi guztien bilakabidea.

TOKAMENTU: «c. escuca, ucutzta, uquitza». A134 *escuca loi edo toca-menturic*: B146 *ibili izan bazara eskuaz deungaro*.

### Ohar zenbait

1) Mailebu onartu gabeaz inoiz baliatzeak ez du esan nahi euskal ordainik ez darabilenik A-n bertan; aitzitik erabili badarabiltza.

2) Are gehiago, sarri biak batera irakurri ditugu, bai EDO-bikote baten bidez (*eternidade* + *betiraun*, *betiraute*, *betiraunde*; *himno* + *kantona*; *laborio* + *garbikera*; *tokamentu* + *eskuka*) bai sinonimo gisa era ezberdinez (*agonia* + *larritasun*; *deseo* + *gogo*; *eternidade* 59 + *betiraun*; *inozente* + *errubage*; *inozencia* + *errubagetasun*; *miserikordia* + *erruki*).

3) *Koluna*, *enbajada*, *enkarnaziño*, *eternidade* 71, *inozencia* 64, *konzeziño*, *miserikordia* 151, 227, *ofizio* eta *pagatu*, aldiz, bakarrik ageri dira. Alabaina, hauetarikoen euskal ordainak A-n barrena eriden daitezke: *metarri* 212, *errubagetasun* 105, *aragitu* 87, *erruki* 9, 43, 98, 112(2), 141 etab., *kitutu* 65, adib.

4) Bitara ematen denean, B-n hitz bikoteko batarekin gelditu ohi da: *himno* / *kantona*, *deseo* / *gogo*, *inozente* / *errubage*, *inozencia* / *garbitasun*, *miserikordia* / *erruki*; baina badira gertaldi berezi batzu:

a) **LABATORIO, AGONIA**: bietan kidearen erroa (*garbi*, *larri*-) mantendu arren, esaldiaren esanahiari (*larri-une* eta *biotz larriren kasuan*) edo itxura berriari (*larririk* eta *garbieteaken*) egokitu dio.

b) **ETERNIDADE**: bikotean erdaratiko hitza hitzberri batez lagundurik zegoen; B-n hitzberria ere largatu du (ik. 2.1.4. atala)<sup>11</sup> eta bien ordez perifrasis bitaz (*beti(co) iraun bearra* edo *andico al-deco betico izatea/bicitzea*) baliatu da.

5) Agerriki Añibarrok ez du VB eskuartean izan, edo gutxienez ez da bertako aukeretara mugatu (cf. 1.1.2. eta 1.3.11.3.ere) atal honetan bildutako hitzak uxatzerako orduan: ordain asko eta asko ez dira VBeko sarreretarik atereak izan eta soilik hirutan (*enpeñu* = *bitarteko*, *konzeziño* = *sortuera*, *miserikordia* = *erruki*) bat datoz EL eta VBeko leku-kotasunak.

6) Gorago aipatu bikoteen artean, ordea, kontrakoa dakusagu: *larritasun*, *garbikera* eta *gogo* izan ezik guztiak datoz hiztegian. Bestalde, *laborio* leku bezala (*garbitegia*) ulertu du VBen, ELan ekintza (*garbikera*, *garbieteak*, *beti* erro berarekin) den bitartean.

7) Azkenik, hitz apur hauen argitan badirudi VB DT baino hertsixea-go izan daitekeela mailebuak onartzen, DTk zekartzan hiru hitz (*deseo*, *miserikordia* eta *pagatu*) Añibarroren hiztegitik kanpo gelditu bait dira; ohar bedi, dena den, lehendabiziko biek euskal ondareko kide aski ugari eta ezagunak dituztela.

(11) Zenbaketok lan honen hurrengo emanaldiko atalei (zehazkiago «Hitz elkartuak» izenekoari) dagozkie.

1.1.2. *VBen onartuak*

B-n ezabatu den mailebu anitz (60= %70'5) euskal hitztzat onarturik dago VBen, oro har «c.» (=«amankomun») bezala sailkaturik. Halaz ere, gehienek bazituzten ezabaketa erraz zezaketen euskal kideak alboan:

1.1.2.1. Kide hori «c.» zenean usu (22 hitzetan) bera da aldaketaren ondorioa:

- AMATU: «c. maitetu, maite, laztan izan». DT: «tomóse del Bascuence *amá* madre; porque *amare* significa una afición y cariño especial, más que *diligere* (...). Pues ese amor especial es propiísimo de las madres y madre en Bascuence *amá*, y el querer con essa particularidad *amá, amatu*». A234: B246 *maitatu*; A235 *amatuco*: B246 *maitatuco*; A235 *ez amatua*: B246 *ez maitatu izana*; A235 *amaten ditut*: B246 *maite dodaz*; A235: *ametaco*: B247 *zu-ganaco amodio*; A163 *ametan zaitut*: B175 *laztan zaitudaz*.
- BANERIA: «c. arrotasuna, antustea, andiqueria, andiustea». A97 *andigura, vaneria ta lurreco ondasun*: B106 *andigurea, buru-erechia ta arrokeria, ta lurreco ondasun*; A201 *andigura, vaneria ta ondasun*: B204 *munduco zorakerien zaletasun ta lera gaistoa*.
- BISITA: (DT). «c. icusta, tea, icusera». A218 *Santa Isabelen visitea*: B232 *Santa Isabel icustea*.
- BISITATU: (DT). «c. icustatu, icusi». A218 *Santa Isabel visitatzera*: B232 *lengusiñea icusten*.
- DESOBEDITU: «c. aguindua ez eguin, esana ez eguin». DT: «tiene raiz Bascongada» (cf. OBEDITU beherago). A132: B139 *euren esanac eguin gura ecic*.
- DUDA: (DT). «c. ezta-baida». A136: B149 *errencura, conca ta ezda baida*.
- ENTERO: «Muy, partícula de superlativo: c. guztiz, chit, chito». A29 *entero pocic*: B33 *pozarren ozta*; A31 *entero ciur*: B35 *gutzizco zucena*.
- FAMA: (DT). Ez s.v. *fama* («c. icen on edo charra»), baizik eta s.v. *Infamar* «c. besteren fama galdu, famabaguetu, creitua galdu, quendu» eta *Infame* «c. infamea, creitu gabea, bagacoa, bacoa» idoro ditugu bildurik A eta B-ko ordainak: A138 *fama galdua*: B153 *creitu galarazoa*.
- JENTE: (DT). «c. lagunac». A201 *neurri-baco genteen aurrean*: B204 *mundu bete lagunen aurrean*.
- KARU: (DT). «c. gora». A137 *carutzat*: B151 *gorago*.
- KUBREL: (DT *cruel*). «c. gogorra, biotz gogorrecoa». A181 *gar cubrela*: B45 *gar aserrea*; A50 *penaric cubrelenac*: B57 *alic gogorrenac*; A181: Ø(o.).
- KUNPLI: (DT). «c. bete, eguin». A86 *bete edo complietan dogu Elexea- ren aguinduz*: B96 *eguiten al dogu Elesharen esana*; A126 *cumpli bozuz Confesoren aguinduac ta penitenciac*: B133 *ea confesoreac aguindurico penitenciac eguin bagaric badaucazuz*; A128 *Promes edo botoren bat cumplizaga*: B135 *Promesen bat bein aguindu ezkeru eguin-tzagaric*; A151 *emon deusut onduco nasalaco berbea eta cumplidu eztoi*: B166 *emon izan deusut onduco nasalaco berbea eta eztoi orain artecoan yagon*.
- LIBRATU: (DT). «c. gorde, atara». A108 *libratu ta atera naguizula*: B116 *atera naguizu*; A170 *Arerio gaistoetari libra naizu*: B181 *Arerio gaistoetari yagon naguizu*; A182: Ø(o.); A220 *libra naguizuz guc* (sic) *iltetic becatuan*: B233 *gura ezipèkizu gu becatuan iltea*.



- MADARIKAZIÑO:** (DT). «c. biraoa, aïena». A128 *birao edo madarica-ciñoric*: B135 *biraoic edo buroric*; A47: Ø; A129 *biraoac, aïenac eta madaricaciñoac*: B137 *biraoac eta arrenac*.
- MANDAMENTU:** (DT). «c. aguindua, agui[n]tea». A126 *Lelengo mandamentuan*: B132 *lenengo aguindua ganean*; A128 *bigarren mandamentuan*: B136 *bigarren aguindua ganean*; A129 *irugarren mandamentuan*: B137 *irugarren aguindua ganean*; A131, 133, 134, 136, 137, 138 *mandamentu*: B139, 142, 145, 150, 152 *aguindu*; A234 *Mandamentu santuac*: B246 *ceure aguinduac*; A135 *mandamentu santu onen contraco becatu guztiac diriala berez mortal*: B148 *seigarreneco gauceetan eztagoala gauza chikiric*.
- OBEDITU:** «c. aguindua eguin, esana eguin». DT: «El Latín y Romance vienen de el Bascuence *obediato*; cuyo origen es de *obé*, que significa mejor y *dia* nombre y verbo: *dia* nombre significa multitud y en el obedecer ay multitud de lo bueno y mejor: *dia* verbo, significa en un dialecto va, anda, marcha; y el que obedece va bien y mejor». A47 *obeditu orainganic berari*: B53 *eguin beti ta beti bere esanac*.
- OBRA:** «c. eguiteac, eguinac, bearrac, cereguiñac, lanac, eguinenac». DT: «es voz Bascongada *obra*, *obrea* y se dixo de *aubra*, contracción de *au berea*, que significa esto es tuyo, y lo que uno haze o produce esso es proprio y suyo; y por esso». A134 *pensamentuz edo obras*: B145 *leen eguina (...), ez eguina*.
- OKASIÑO:** «c. bide». A73 *ocasiño, lagun, batzar, lecu ta galgarrietaric*: B83 *lagun, batzar, bide, lecu eta ganeco galgarrietaric*; A52 *ocasiño deunguetatic*: B60 *galbideti*.
- SOSEGU:** (DT). «c. epetasuna». A60 *sosegu epe andiaz nago*: B69 *epetasun andian ta bake zabalean bici nas* (cf. PAZIENZA beherago).
- TENPLU:** (DT). «c. elessea, xea». A219 *Jerusalengo Templu santuan*: B232 *Yerusalengo Elesha santan*; A220 *Zure Semea Templuan*: B233 *Eleshan zure Semea*.
- TRONPETA:** (DT). «c. turunta». A40 *Aingueruac jo ezquero araco trompeta bildurgarria*: B45 *Angueruac turrunta bildurgarriari...*
- HUMILDANZIA:** «c. umiltasuna». A48 *lelengoa, umildancia*: B54 *lelen-go, humiltasuna*; A72: B82 *umiltasuna*.

#### 1.1.2.2. Inoiz VBeko kidea «b.» (=«bizkaierazkoa») da:

- DESEATU:** (DT). «b. gura; g.n. nai izan». A134 *Eriotzaric ceuri edo besteri deseatu*: B143 *opa edo emon gura*. A132: Ø (4.m).
- OBEDILE:** (DT). «b. esanecoa». A183 *O Isac obedillea*: B191 *O Isaac seme esaneco ona*.

#### 1.1.2.3. Inoiz, eta azkenik, A-ko mailebuaren orde z ezarri duen hitza ez dator VBen:

- a) Hala ikusi dugu bakanka gorago aipatu hitzen artean: ik. A201 *baneria*, A29 *entero*, A181 *kubrel*, A151 *kunpli*, A170, 200 *libratu*, A135 *mandamentu*.
- b) Hori bera gartatzen da, halabeharrez, VBeko kidea ekialderagokotzat (n = nafarrera, g = gipuzkera) eman duenean<sup>12</sup>.

(12) Hala ere, bein *madarikaziño* A128: *buro* B135 (ik.1.1.2.1.), cf. VB s.v. *Blasfemia* (n.) *buroa*.

ABISU: (DT). «g.n. gaztigua». A58 *dei, argui ta avisuac*: B66 *dei, argui eta biotzketaac*.

ERREZATU: (DT). «n. otoiztu». A35 *errezau cerbait*: B40 *esan eguizuz oraciño batzuc*; A38 *errezatu*: B43 *esaizu*; A50 *errezatu*: B57 *esan eikezu*; A56 *errezatu*: B63 *esan eguizuz*; A74 *errezatu cerbait*: B84 *oraciñoren batzuc esan*; A210 *errecetan da*: B211 *esan ciñaike*; A214 *bera erreceteaz*: B228 *bera esateaz*; A215 *errecetan eztabenac*: B228 *esaten eztabenac*; A215 *berau errezaturic*: B229 *berau esanagaz*; A215 *errezatu leiz*: B229 *esan leizan*; A216 *errezatu beozu*: B229 *esan bear dozu*; A217 *errezatu*: B230 *esan*; A218 *errezatu edo cantetan dira*: B231 *esan edo contadu eguiten dira*.

KARGA: «n. zama». DT: «es voz Bascongada». A186 *becatuèn carguea*: B192 *becatuen anditasuna*.

c) Aurrekoetan legez bestetan ere VB-en arabera itxaron ez zitekeen ordezkoen bat bilatu du, sarri A-ko hitzak ez zeukan esanahi zehaztasuna erdietsiaz:

ANIMALIA: (DT). «c. aberea, hacienda, ganadua». A135 *abere-animaliacaz*: B147-8 *patariagaz edo abere mutuagaz*. cf. Azk. s.v. *patari* «(Bc,...), alimaña, animal dañino».

BIZIO: «g. gal o calguiroa; c. obena»<sup>13</sup>. Aitzitik, B-n beti «oitura txar» esanahiaz oharturik itzultzen du: A15: B19 *ecandu char*; A18 *bicio char*: B22 *izcune charren bat*; A41: B47 *ecandu deunga*; A69 *bicioetan*: B78 *becatuetan*; A73 *bicio gaistoren bati*: B82-3 *izcune gaistoari*; A76 *ecandu ta bicioac*: B86 *ecandu eta lera deungaac*.

DEFENSA: «c. escudagoa, gordequera»<sup>14</sup>. A102 *bere defensan*: B110 *orren alde eguitearren*. DT (eta VB) «A favor de alguno, estar, hazer, norbaiten alde egon, eguin».

ERREBERENZIA: (DT). «c. errespetoa, beguirunea». A131 *zor jaken erreberencia*: B139 *zor yaken itzala*. Cf. Azk. s.v. *itzal* «4.º (Bc,Gc,L, R-uzt), respeto y también respetable».

INSTANTE: (DT). «c. memento baten». A49 *bete instante, ordu, lan*: B56 *ez alperric yoaten ichi ezta dan apurric chikienari bere*.

JUZGU: (DT s.v. «murmuración»). «murmuración: c. murmuria, gaisquiesaca». A138 *juzgu deungueric arin eguin*: B154 *Eguin izan dozun susma deungueari edo buruac ecarri izan deuntsun peco charrari arin ta bete betean sinistea*.

KRIATURA: (DT). «c. baguetic eguiña»; alabaina, etimologiatik hain hurbil dagoen VBeko itzulpena alborra largatuaz oso egokitze xehak lortuko ditu B-n: A39 *errazoiric eztauden criatura*: B45 *Arguiric eztauken abere mutuac*; A109 *egazti ta criatura guztiac*: B116 *egaztiac ta gauza guztiac*; A156 *ecereztuteco criatura guztiac*: B170 *gauza guztiac ecereztuteco*; A156 *criatura zantar ecertaco bat*: B170 *icuski*<sup>15</sup> *zantar ecetaco ez bat*.

KRUDEL: ik. KUBREL gorago, bereziki A181-eko agerraldia. A39 *gar crudela*: B45 *gar aserrea*. Bidenabar, Añibarrok ez du VBen aldea hau bildu.

(13) Ohar bedi hemen «g.» = DT, hots, Larramendiren hiztegiak zekarrenaren transkribapen zehatza.

(14) DTn ere *escudagoa*, baina *gordozquera*.

(15) VB «Espectáculo: b. icusquia»; Azk «(B? Añ)». Bestela eman dezakeen arren, ez da DTko hitza, bidenabar itxura bizkaitar berezirik gabe Añibarrok bizkaierazkotzat sailkatzeak susmarazi behar zigunez: oker ez banago, Larramendik asmatutako hitzak direnak edo izan daitezkeenak «c.» edo «g.» azpian (cf. 13.oharra bigarren aukeraren adibide baterako) sartu ohi ditu, osagaien itxura gipuzkoarra edo orokorragoaren arabera.

- MUGIDU: (DT *mugitu*). «c. *muguitu*, *iguitu*; n. *eguidi*». A19 *muguietan zaituala obeto ebaguiten bici char bat*: B22 *gar gueyago emoten deutsula izcune charren bat garbituteco*.
- PAZIENZA: (DT). «c. *eroapena*; b. *epetasuna*». A104 *eroan daidazan paciencia ta humiltasunaz*: B113 *bakéan eta onean eroateco*.
- PENATU: (DT). «c. *mindu*». A204 *beste zorionic gura eztot ezpada Ceugaz batera penatu*: B206 *Nekeac izan bitez emen nire gozoa*.
- ZARRATU: «b.g. *ichi*». DT: «puede venir de el Bascuence *cerratu*, *zarratu*, que en un dialecto significa lo mismo». A146 *urresco becatuan zarratuco da nire contraco sententia gogor adu gaistocoa*: B161 *urresco eguin daikedan becatuan ene ganean yoco dau nire contraco betico sententia gogor adugaistococ*.

d) Inoiz edukin edo estilo aldaketa batek mailebu baten agerrialdi bakarra suntsitu du:

- ADOBADU: «c. *compondu*, *ondu*, *obetu*». DT: «es voz puramente Bascongada, de *adoba*, *adobatu*, remendar, y este verbo de *oba*, *obatu*, *obe*, *obetu*, mejorar, y es lo que se procura remendando. De aquí por analogía se aplica este verbo a otras acciones». A130 *dala gauza barria, nai adobetea zarrac*.
- AKABA(TU): (DT). «c. *azquendu*, *cabutu*; b. *amaitu*». A206 *Acaba-bedi, Jauna, Ceure vicitzeaz batera nire vicitzea*.
- BENIAL: (DT). «c. *ariña*». A128 *edo eguia izan arren, gauza chiquiaren ganean, au veniala da*. Bestela, *arina* bi edizioetan dugu: A44 *becaturic arin eta chiquerrena*: B49 *becaturic arinena*; A85-B95 *becatu arinac*.
- TESTIMONIO: (DT). «c. *eguin eztabena jaso*, *ezarri*, *eraguitea*, *erantetea*, *guzurra eregui*, *asmadu*, *erantadu*, *ezarri*». A138 *Guzurrezco testimonio edo gauza char andi astuna eregui deutsenac*.

e) Hitz zerrenda batetik mailebua ezabatu du aldizka:

- MANTENDU: «c. *janaritu*; g.n. *bazcatu*». A236 *mantendu ta batu*: B248 *batu*.
- OBEDENZIA: «c. *obedia*». DT: «voz Bascongada. *obediencia*, cuyo origen se acaba de explicar» (ik. OBEDITU). A131 *lotsea, obediencia ta zor jaquen erreverencia*: B139 *lotsea edo zor yaken itzala*.
- PROMESTU: (DT). «c. *agindu*, *opa*, *esqueñi*, *isquindu*». A73 *promestu ta artu gogo sendo bat*: B83 *artu (...)* gogo *cincoac*.

#### 1.1.2.4. VBen ordekorik gabekoak

Añibarro hiztegitik gilearentzat erdaratik mailebatua baino beste ordainik ez zuten zenbait hitz ezabatzen ditu A-tik B-ra idazleak:

- BERTUTE: (DT). «c. *vir*, o *vertutea*». A202, 232. Ik. 1.2. BER-/BIRTUTE.
- ENGAÑU: «c. *engañua*». DT: «viene del Bascuence *gañá*, *ganá*, *gaintá*, que significa encima, sobre, y el que engaña quiere sobreponerse y suplantar al engañado»<sup>16</sup>. A137 *Saldu-erosietan, artu-emonetan, pisu ta neurrian, joco ta beste onelacoetan trampa ta engañuric sartu dozunez*: B151 *Yocoan, saldu-erosietan ta artu emonetan zindo ta garbi ibili ezpazara*.

(16) Añibarrok ez du VBn Larramendik dakartzan *gainta*, *atzipea*, *baira*, *ciliboca* onartu.

- ERRAZOI:** (DT). «b. errazoia; g. arrazoia; n. arrazoina». A39 *errazoi-ric eztauden criaturac*: B45 *arguiric eztauden abere mutuac*. Antza denez, erdal hitzaren bi zentzuetarik bat —hots, «adimentua» edo berak dioenez «argia»— ez du onartzen, euskal ordain aski izaki.
- GUSTU:** «c. gustua». A34 *gorputz au nabil ni edertu ecinic, olgura, gustu citel ta naigurac emon ecinic?*: B40 *gorputz oneri nabilco ni nayeraac eta mizkeriac eguiten?*; A41 *olgura, atseguin ta gustu cite-lac*: B46 *olgura, solas, atseguintasun ta erakeria citelac*; A55-6 *ichi ceure gustuco jaqui ta copaua*: B63 *gozago eguiten yatzun jaki edo copaua*; A135 *edo beste edocein modutan gustu loi charra artzen dala*: B147 *edo bestera izan dozuzan argaltasunac*.
- JUZGAU:** «c. juzgatu». A72 *juzgauc naben Jancoicoa*: B81 *contu ori artuco deustan Yaungoicoa*; A233 *biciac ta illac juzguetara*: B245 *biciac ta ilai euren bicien contu artu ta sententia emotera*.
- KOLPE:** «c. colpea, golpea». DT: es voz Bascongada, *golpea, colpea*, y viene de *colaspea*, que propriamente significa *sopapo* y la guantada ó *gaznatada* que allí se da, se llamó *colpea* y de allí por extensión a otros golpes, heridas, contusiones». A192: *ezainduric colpeacaz, baltzituric matrallacoacaz*: B197 *ainbeste yotegaz baltzituric, audituric*.
- KONSEJU:** (DT). «c. consejua, consellua». A37-8 *Emon guztiai on-bide ta conseju onac*: B43 *emon eikezuz guztiai oneraco burubideac eta gantza*<sup>17</sup>.
- LUTU:** (DT). «c. lutua». A205: Ø(o.).
- PINTATU:** (DT). «c. pintatu». A51 *emeco suac pintatua leguez izanic*: B58 *su usaña bashen eztan su onec*.
- PREGOI:** (DT). «c. pregoia». A184: Ø(o.).
- TENTAMENDU:** «c. tentamentua; b. tentaciñoa; g. tentacioa; c. tentaldia». A73 *alde eguiteco tentamenduac*: B82 *becatu-bideetari alderatuteco*<sup>18</sup>.
- TENTATU:** (DT). «c. tentatu». A30 *tentatu ninduen deabruac*: B35 *deungueraco puztu edo okerreraco gantza niri emoten eusten Deabruac*<sup>19</sup>.
- TRANPA:** (DT). «c. trampa, ea». A137, cf. ENGAÑU.
- HUMILDU:** (DT). «c. umildu, umillatu». A156 *Angueruac eurac icaraz humilduric*: B171 *Angueruac eurac auspez*; A194 *noc alan argaldu, macurtu ta lurra mun eraguin deutsu (...) Cec alan humildu, auspeztu, ecerberertzta ta beeratu eban*: B198 *Noc alan argaldu ta indarguetu dau*.

#### 1.1.2.5. VBen ez daudenak

Badira oraindik mailebu zenbait Añibarroren hiztegian aurkitu ezin daitezkeenak, beren erdal kideek ez bait dute sarrerarik izan, hain zuzen. Añibarroren aldetik ez bide da gertaera hau monta handikoa: dakigunez, bereak ez du hiztegi osoa izan nahi, predikalarien zereginetarako hitz beharrenden bilduma baizik. Hala ere, ohartzekoa da segidan doazen hitz apur guztiak, neurri ezberdinetan, erlijio hiztegi batean itxa-

(17) *Burubideak*, antza denez, VB s.v. *Aconsejar* (g.) *buruzbidea* emanen du sustrai.

(18) Cf. B92.179 *tentaciño-aldi*.

(19) Ik. KONSEJU gorago *gantzen* beste erabilera baterako; cf. Azk «gantz 2.º» (B,ms-Otx), *fomento, ayuda*.

ron daitezkeenak direla; beharbada oharkabeen egindako jauziei baino ez zaizkie zor VBeko hutsuneok, *consagración* eta *condenación* kasuetan bereziki. DTn, ostera, guztiek —*mérito* salbu— dute beren tokia eta, besterik ezean, honen lekukotasunarekin parekatuko ditugu:

DESONDRA: DT *deshonrea*. A188 *lotsari ta desondra andienagaz*: B194 *lotsariric andienaz*<sup>20</sup>.

EJENPLU: DT *exemplu*. VBen soilik beste esanahi batekin (c. guertaldia; b. jazoera, egemplua). A133 *adibide char edo egemplu deungueric*: B141 *charreraco bideric*.

KONDENAZIÑO: DT *condenacinoa*. A59: B67 *galdutea*.

KONSAGRAZIÑO: DT *consagracioa*. A113 *Consagraciño ostein*: B120 *sagara ostein*.

MERITU: ez da DTn. A65 *bere graciáz, bere meritu, dei ta adibideacaz*: B74 *bere graciacaz, deiacaz, arguitasunacaz eta laguntasunacaz*. Ez dirudi B-koren bat ere dagoenik bere ordez.

### 1.1.2.6. *Euskal itxurara egokituak*

Noizbait beharrezkotzat jotzen bide zituen mailebuei euskal itxura handiagoa eman die edo, bestela esan, erdal antz gutxiagoxeko aldaerak hobetsi ditu:

MARTIR: MARTIRI. A209, 229 / B208, 242. VB «c. martira»<sup>21</sup>.

MEREZIDU: MEREZI. A162, 178, 193, 235 / A33(2), 150, B165, 175, 247. VB «c. mereci, mercedu».

PELLIGRU: PELLEBURU. A53, 129 / B145; VBen —beste zenbaiten artean— «c. peligrua, perilla; b. pellibrua». Cf. Barrutia 304 *peliburu*; Urkizu 35, Arzadun 24, 27, 45, 52 *pelliburu*. Añibarrok B-n darabilen aldaeraren beste berririk ez dut aurkitu erabili iturrietan.

ESPILLU A192 / ISPILLU B197. VB «c. espillua, ispillua»; A94 = B103 eta A229 = B241 agerraldietan itxura zaharra ikutu gabe mantendu du.

## 1.2. *Mailebu gutxituak*

Idazleak beti ezabatu dituen mailebuez gain badira B-n agerraldi kopurua nabarmenki gutxiturik daukaten beste batzu; baita noizbait gisa esanguratsu batean ordezkaturik izan direnak ere:

AMORE: A-n zituen 5 agerraldietarik soilik bi (A95 = B105, A225 = B237) gorde dira; A112 *nire amorezi zentzua pixka bat aldatuta* B120 *gure oneraco* bilakatu da. Gainerakoen ordez *amodio* (A164: B176, gehi A161 *amorezco*: B173 *amodiozco*) eta *laztantisun* (A167: B179). *Amore* VBen onartua dago hitz amankomun bezala (Azkuerentzat (B,G,L) da eta Landuchio eta Urkizurengan agertzen da, adibidez), nahiz eta sinonimo asko eskeintzen diren; hauetarik bat *amodio* da, hain zuzen, «g» izanda ere agian erdal itxura txikiagoa erakusteagatik hobetsia. Bere aldetik, *laztantisun* ez da s.v. *Amor* azalzen: dirudienez, bestetan sarri erabili duen *laztandu* (cf. NA 4-6,

(20) Dena den, cf. VB s.v. *Afrenta* (c.) *deshonrea*.

(21) DTn *onqueriola*. Testu zaharretan behin aurkitzen dugu Añibarrok hobetsitako aldaera, 1610ean Iruñan saritutako poesia batean, cf. TAV 3.1.21,58.

- 15-13, 17-5, 21-17) bezala *laztan izanek* (ik. AMATU, § 1.1.2.1.) ireki bidetik atereak dira.
- BEDEINKAZIÑO:** Agerraldi bakarra B-n: A121 = B127; A97: B106 *bendiziño* bihurtu da, VBen biak «c.» bezala dakuskigun arren. Azkenik, A47: B 54 *Betico zorionecoa* (*sententzia*), esaldiaren jitea arras aldatuaz.
- BENERAGARRI:** A172: B182 *andia*; A228: B241 *itzal andicoa*. A83, 122 = B94, 128, halere, eta bigarren edizioan oraindik beste bi (B215, 220) erantsi nahi izan zituen.
- BER-/BIRTUTE:** Oraindik ugari B-n: A10, 32(2), 72 = B15, 37(2), 82. Inoiz, alabaina, arrastorik gabe desagertzen da (A202) edo ordezko batek bere lekua hartzen du: A19: B22 *on*; A69: B78 *ceruraco bi-dean*; A73: B83 *arturico lanari*; A232 *al ta vertutez*: B244 *eguitez ta graciaz*. Ordezkatua gora behera, ohartzekoa da aldaketon ondoren *bertute* aldaera zeharo bazterturik gelditu dela.
- BORONDATE:** inoiz dagoen dagoenean gorde bada ere (A10 = B14, A61 = B69, A70 = B 79, A80 = B 90, A184 = B191), A-ko lekukotasun gehienak galdu dira B-n. *Borondatezen* ordezkari *gogo gogoric* (A102: B111, A16: B19), *gogoti* (A184: B191), *guraz* (A130: B138) eta *atzeratuteco aleguic eguin bagaric* (A126: B133); era berean, *borondate*: *gogo* (A178: B187), *biotza* (A15: B18) eta *esana* (A190: B196); *borondatezko*: *biotzezko* (A18: B21) eta *pensamentu utsez* (A45: B51). Behin (A71) erabat desagertzen da zerrenda batetik. Esan gabe doa aldaketa guzti hauekin *borondateren* zentzu zabala murriztu nahi izan duela Añibarrok: VBen onartua bada ere, bigarren sarrera bereizi bat egiten zaio *Voluntad, el acto de querer*, non bakarrik «c. naia, gogo; b. gura» sartzen diren. Bestalde, *De buena voluntad borondate onezen* aldamenen *gogo onez, gogotic, gogoz, biotz biotzetic* daude, aldaketen hildoa.
- BOTO:** A135 = B147, baina A128 *promes edo votoren*, B135 *promesen* bilakatzen da. VBen biak berdín onartzen dira.
- DENPORA:** Adibiderik hoberenatarikoa *denporak* ematen digu. Guretzat *denpora* hitzik arruntena da (erabilera eta gizarte onspenaren aldetik) eta halaxe bide zen garai hartan ere. Badakigu, ordea —eta Añibarrok ondo jakin zuen—, hitz honek badituela zenbait euskal ordeko; hauek, baina, orain nahiko eremu laburra betetzen dute: *aldi* kasik eratorri-atzizki baino ez dugu erabiltzen; *asti* ia soilik *astirik* aski fosilduan gordetzen da, esaterako. Añibarrok, nolana ere, hauetaz eta besteez baliatu zen *denpora* abantzu ezabatzeraino, A-ko 26 agerraldietarik bakarrik bat (A48=B55) utziaz.
- Gehienetan *aldi* dabil (cf. VB «No en mi tiempo: c. ez nire (...) aldian»): A36: B42; A75: B85; A108: B116; A128: B135; A132: B140; A133: B141; A206: B207; A37: B42; A57: B65; gainerakoetan *egunak* (cf. VB «Tiempo: c. egunac, urteac, etc.»): A48: B55; A49: B56; A23: B27; *abegune* A24: B29; A37: B43; *era* A60: B69; *astirik* A39: B44; *arte guztian* (cf. VB «Entre tanto: c. artean») A149: B164; *egotaldi* A18: B21; eta, azkenik, zarpitan desagertzen da era ezberdinetan: A131 *garizuma denboran*: B138 *garizumaan*; A49 *demporeac*: B56 *eurac* (egunacn erreferentziakidea; ik. gorago); A153 *erea, astia ta dempora*: B168 *erea, astia ta go-go*; A48 *negar ta damuz demporaz urtu*: B54 *negarrez eta damuz garbitu*; A51 *aldaizun dempora guztian, batez bere Ave Maria baten bitartean*: B58 *guichienez Ave Mari bat esaten dan bitartean*; A150

*Ceugana demporaz badator damuturic*: B165 zu gana ondo damuturic badator.

- DOLORE**: Nahiz eta erdaratikoa bera ere sarrerapean eman, hitz jator mordoia, zehatza eta aproposa gainera zuen aukeran: «Dolor: c. miña; g.n. oñacea; c. somiña, dolorea; intenso: b. ala, min-ala», «Dolor, arrepentimiento: c. damua, biotz miña, biotz damua; b. garbaia», «¡Ay qué dolor! ¡Ay dolor!: c. ay ene! oi ta au miña, oi ta miñaren gogorra». Behin izan ezik (A68 = B77), hortaz, *dolore* alboratu du: A187 *Au zan bai dolorea!*: B193 *¡Au bai zala nekeal!*; A201: B204 *min icaragarria*; A221 *Jesus cegoan dolorez*: B234 *egoan Yesus larriric*; A196 *dolorez*: B200 *nekez ta alaz*; A220 *doloretsuok*: B233 *minez beteac*. Oraindik beste bi bider aztarnarik utzi gabe ezabatu izan da (A221, 222).
- ERREGU**: A38 = B43, A93 = B103, A93 *erreguka* = B102. Hitz honek, ordea, beste lau agerraldi gehiago zituen A-n: A76: B86 *oraciño*; A85 *escaria ta erregüecaz*: B95 *escariacaz*; A106: B114 *oraciño*; A167 *escariac ta erregüac*: B179 *escariac*. VBen «Ruego: c. erregua; n. otoiiza».
- ERREGUTU**: VB «Rogar: c. erregutu, bitartetu; n. otoiizu, otoiizu eguin». Oso erabilia da bai A-n eta baita B-n ere (A9 = B13, A16 = B21, A17 = B21; A52 = B60, A58 = B66, A79 = B89, A80 = B90, A216 = B229, A227 = B239, A228 = B240); haatik, A18: B22 *escariac eguin*, A82: B92 *escatuten*; A114: B121 *escaariac eguin* eta A177: B186 *escarituten*, ERREGUK pairatu aldaketaren hildo beretik.
- ESTAZIÑO**: A-ko «Calvarioco *estaciñoac*» *geraldi* bihurtu ditu Añibarrok sistimatikoki; bihurketa honetaz at soilik B211 *estaciñoa* (= A211) geratu da. A176an jadanik *estaciño edo gueraldi santuac*. VBen «Estación de templos, etc.: *egotaldia*» da —DTari jarraiki— erdal hitzari ematen zaion adierazle bakarra; halere s.v. *Parada* (b.) *geraldia* hobetsi du, Larramendiren proposamenaz beste adiera orokorrago batean baliatu nahi izan bait zuen, cf. NA3 *ta iñosbere egotaldi ta izate baten eztirau* edota GG 199 *becatuaren estaduan, egotaldian ta toquian dago*.
- GOZAU**: Añibarrok ez du hitz hau bere hiztegian onartzen mailebu gisa («Gozar, tener, poseer: c. euqui, g. iduqui», «Gozarse: c. poztu, pozartu, atseguin artu») Larramendiren irakatsiak jarraituz: «Gozo, es voz puramente bascongada, *gozó, gozoa*, y significa primeramente lo dulce y la dulzura; y el gozo, ó es dulzura, ó la causa, en el bien poseído (...). Lo segundo, significa buen temple y sazón de una cosa: *belaun-gozoa* dezimos, v. g., al buen temple y flexibilidad de las rodillas. Y el gozo es el que pone á uno en bellissima sazón y temple. Y de aquí, al deponer la ira, al templarse, mitigarse, dezimos *gozatu* (...). Y sin embargo, por gusto, contento, alegría no dezimos *gozoa*, sino *poza, bozcarioa, atseguña, sendagalla*». Honen arabera eta zeharo ezabatu ez badu ere (A68 = B78, A120 = B127), ahaleginak egin ditu ELtik kanporatzeko: A62 *Zoriontasun benetaco oneec gozauco dodaz*: B71 *izango dodaz*; A182: Ø (o); A186 *gocetaco* (...) *Ceruco bear-sari ugari gozoac*: B183 *ceruco bear-tsari gozoac izateco*; A200 *Zu betico gozetarren Cerueta-co glorian*: B202 *irabazteco ceruco anditasun ederra*.
- INDULJENZIA**: Mailebua ez da zilegi VBen: «c. parcamendua; b. paracaciñoa; g.n. barcacioa; c. parcamena». Soilik behin mantendu du: A215 = B299 (baina ik. PLENARIA 20.or.). A7 *Indulgenciac edo parcamenac*: B11 *parcamen*; A28, 78, 80, 110(2), 177, 179, 214, 215:

B33, 88, 90, 117, 118, 186, 187, 214, 229, 242 *parcamen*; A215: Ø. Ohar bedi bukaerako hitza —beranduagoko eransketa?— hautatu duela VBetik.

KOMULGATU: Larramendik «Comulgar, *comulgatu*» eman arren, Añibarrok aukera gehiago bildu ditu bere hiztegian: «c. *comulgatu*, J.C. gorputza artu; n. *comecatu*; c. *guere Jauna artu*». Bildu ezeze erabili ere egin zuen B-n: A105: B113 *Yauna artutera*; A155: B169 *Yauna artu*.

KONDENATU: VBen haxe da «condenar» adierazteko dakarren hitz bakarra; Larramendik, bere aldetik, soilik *eripetu* eransten zion mailebuari. Hala eta guztiz ere, B-n (*betiko*) *galduz* baliatzen da Añibarro neurri handi batean *kondenatu* ezabatzeko: A26, 91, 180 = B30, 100, 188; A53: B61 *betico galduco*; A55: B62 *galдутен*; A55: B62 *betico galdutea*; A55: B63 *galdu*; A55: B63 *galduteco*; A58: B67 *galdu*; A59: B67 *betico galdutea*; A61: B69 *galdu*; A146: B161 *betico galduteco*; A147: B162 *betico infernuan sartuteco*. Cf. KON-DENAZIÑO § 1.1.2.5.

KONZIENZIA: Berriro ere hitz tekniko baten erabilera murrizten da hitz jator bezain apal batzuen bidez: A24, 43, 45, 58, 68, 125: B28, 49, 51, 65, 77, 131 *biotz*; A28 *Orduric ordu eguin concienciaco billacuntzea*: B32 *Orduric ordu ceure buruari contu artu eikiozu*; A30 *aimbat quisquetada, atejoca ta dei emoeustazan conciencia enea*: B35 *Yaungoicoac niri emon (...) ainbeste argui-aldi eder, dei gozo...* Bestetan, aldiz, A33, 68, 124, 125 = B38, 77, 130, 131. VBen ez du sarrierarik hitz honek, baina DTn mailebua *barjaquindearen* aurrean ipinirik dago.

LLAGA: A105 *zauri ta llaga*: B113 *zauri*. VBen biak s.v.

MEDITAZIÑO: Lehendabiziko edizioan hitz hau beti bere kide den *gogartekin* batera agertzen da: A13, 16, 17, 71 *gogarte edo meditaciñoa*, A4 *meditaciño edo gogartea*; alabaina, VBen ez du mailebua onartzen («Meditación: c. *gogartea*»; DT: «*gogartea, gogartatzea*») eta B-n bakarrik behin (17 *gogarte edo meditaciño*) gorde du bikotea: B6, 19, 20, 81 *gogarte*.

MEMENTO: VBen agertu arren («En un instante: c. *memento* baten») beste esamolde batzuk bete dute honen lekua B-n: A28 = B32, baina A48 *memento batec*: B55 *euren izpiric chicarrenac*; A50 *memento bateco*: B57 *apur bateco*. Cf. INSTANTE § 1.1.2.3.c.

OFENDIDU: A143: B159 *zure contraco okerric eguin*, baina A7, 96, 111, 115, 143, 151, 235 = B12, 105, 119, 123, 158, 166, 246. VB s.v. «c. *ofenditu, iraindu*».

OLGURA: A41 = B46, baina beste guztietan baztertu du: A34: Ø; A27 *olgurac ta atseguñac*: B32 *gozoac eta atseguintasunac*; A56 *olgura ta gozotasuna asmetan*: B63 *pocic ta gozoric gueyen asmetan*; A62: B70 *atsegintasun*; A163: B175 *atsegintasun*; A204 *lurreco ondasun uts ta olgura*: B206 *munduco atseguin ta naiari*; A56, 201: Ø.

ORAZIÑO: «Curutzetacoen ibilbidea»n —baina ez bestetan— A-ko *oraciñoa* guztiak *eskaaria* bilakatu dira B-n (A181-209.or.: B189-210.or.). Cf. ESTAZIÑO gorago.

PENA: A-ko 14 agerraldietatik 3 (A68 = B77, A179 = B188, A182 = B190) mantendu dira B-n; sarri desagertu da arrastorik utzi gabe (A66, 190, 186, 209, 221), baina besteetan *ala* (A50: B57, A178: B187) zein *neke* (A190(2), 192, 224: B195, 196, 197, 236) ezarri du Añibarrok horren ordez.

PLENARIA: VB «Plenaria, indulgencia: c. *indulgencia, parcamen osoa*,



- betea»: A215 *Indulgencia Osoa edo Plenaria*: B229 *parcamen osoa edo indulgencia plenaria*; A215 *Indulgencia plenaria*: B229 *parcamen osoa*; A110 *Indulgencia Plenaria edo osoa*: B118 *parcamen osoa*.
- POBRE: A163, 175 = B175, 185, baina A46 *pobrechu*: B52 *necatuchu*; A161: B173 (*etxe*) *uts*; A165: B177 (*ostatu*) *billosh, uts*.
- PROPOSITU: A77 = B87 *propositu eta gogo onac*, baina A75 *propositu, gogo*: B85 *gogo*; cf. VB «Propósito de hacer algo: c. gogarta, gogo artzea, propositu, ondu nai». Bestalde, A81 *propositu sendoaz aurreantzean ez jausteco*: B92 *erazoten deutzazula gueyago ez eguiteco berbea*.
- SAKRIFIZIO: A111 *orain barriztetan dozu orduco Sacrificio balio andicoa*: B119 *barriro altara orren ganean eskintzen dana*; A103, 106, 122 = B111, 114, 128, ordea. VB s.v. «c. sacrificio».
- SALBATU: Sarri mantendu bada ere, badago B-n hitz hau baztertzeko joera nabarmen bat, gehienetan zeruaren inguruan eratzten diren esaeren bidez: A64: B73 *ceruratu*; A57: B64 *cerua irabaci*; A56 *salvetarren*: B64 *cerura eroatearren*; A64 *salvetaco ustea*: B73 *ceruraco usteric*; A65: B74 *cerua irabazteco*; A127 *salvatu ecin ciñatequeala*: B134 *ecin ceruric ecetara bere izan leitekean*; A127 *salvatuco zareala*: B134 *ceruraco bazareala*; A169: B181 *gorde*; A69 *salvetarren*: B78 *cerura eroatearren*; A112: B120 *ceruratu*; A147 *salvetaco*: B162 *ceruraco bidean iminteco*. VB «Salvar, dando la gloria: c. salvatu».
- SEPULTURA: VBen «g.n.»tzat dakarren *obia* hobetsi du B-n *sepulturaren* kaltetan (VB «c.»): A89: B99 *obian edo sepulturan*; A89(2), 119, 209: B99(2), 126, 210 *obi*; oraindik A34 *sepulturan*: B39 *lurpean eta* A210 *izan nadin Sepultura garbi eder bat*: B211 *izan bidu neure biotza (...) ene Yaunaren toki ederra*. Halaz guztiz, A35, 89, 209 = B40, 99, 210.
- TRISTE: A29 *chito tristeric*: B34 *biotza ondo ilic*; A174: B184 *ilun*; cf. VB «Triste: c. tristea» baina «Tristeza: c. tristeza, biotzeco iluna, iluntasuna, tristura». A29, 209 = B34, 210.

## 1. TAULA

abisu = biotzketa (1/1)	= lera (6/1)
agonia = larri- (3/3)	= bekatu (6/1)
amatu = maitatu (6/3)	borondate = gogo (16/4)
= maite izan (6/1)	= biotz (16/2)
= laztan izan (6/1)	= gura (16/1)
amore = amodio (6/2)	= esana (16/1)
= laztantasan (6/1)	= pensamentu uts (16/1)
animalia = pataria (1/1)	boto = promes (1/1)
baneria = buru-erechi (2/1)	defensa = alde (1/1)
bedeinkaziño = bendiziño (3/1)	denpora = aldi (26/9)
beneragarri = itzal andiko (1)	= egunak (26/3)
= andi (1)	= abegune (26/2)
ber/birtute = on (9/1)	= era (26/1)
bisita = ikuste (1/1)	= asti (26/1)
bisitatu = ikusi (1/1)	= arte (26/1)
bizio = ekandu { gaisto (6/2)	= egotaldi (26/1)
= izkune { char	deseatu = gura izan (1/1)
= izkune { deungu (6/2)	deseo = gogo (1/1)

- desobeditu = ensanak ez egin (1/1)  
 desondra = lotsari (1/1)  
 dolore = neke (6/1)  
     = min (6/1)  
     = larri (6/1)  
     = neke ta ala (6/1)  
 doloretsu = minez betea (1/1)  
 duda = ezdabaida (1/1)  
 ejenplu = bide (1/1)  
 enbajada = albiste (1/1)  
 engañu = zindo ta garbi ez ibili  
     (1/1)  
 enkarnaziño = gizon egite (1/1)  
 enpeñu = bitarteko (1/1)  
 entero = gutzitako (2/1)  
     = -arren (2/1)  
 errazoi = argi (1/1)  
 erreberenzia = itzal (1/1)  
 erregu = oraziño (7/2)  
     = eskari (7/2)  
 erregutu = eskariak egin (14/2)  
     = eskatu (14/1)  
     = eskaritu (14/1)  
 erregutu = eskariak egin (14/2)  
 espillu = ispillu (3/1)  
 estaziño = geraldí (15/14)  
 eternidade = beti(co) iraun bear  
     (6/3)  
     = betico (6/1)  
     = andico aldeco betico  
     bizitzea/izatea (6/2)  
 fama = kreitu (1/1)  
 gozau = izan (6/2)  
     = irabazi (6/1)  
 gustu = gozo (4/1)  
 himno = kantona (1/1)  
 indulgenzia = parkamen (13/11)  
 inozente = errubage (1/1)  
 inozenzia = arimaco garbitasun  
     (3/2)  
     = bekatu-eza (3/1)  
 instante = apur (1/1)  
 jente = lagunak (1/1)  
 juzgau = kontu artu (2/1)  
 juzgu = susma, peko (1/1)  
 karga = anditasun (1/1)  
 karu = gora (1/1)  
 kolpe = yote (1/1)  
 komulgatu = Yauna artu (2)  
 kondenatu = (betiko) galdu (13/9)  
     = betiko infernuan sar-  
     tu (13/1)
- kondenaziño = galdute (1/1)  
 konsagraziño = sagara (1/1)  
 konseju = gantza (1/1)  
 konzeziño = sortuera (1/1)  
 konzienzia = biotz (6)  
     = (norberaren) buru (1)  
 kriatura = gauza (4/2)  
     = ikuski (4/1)  
     = abere mutu (4/1)  
 kubrel = aserre (4/2)  
     = gogor (4/1)  
 kunpli = egin (4/3)  
     = yagon (4/1)  
 laboratorio = garbi- (1/1)  
 libratu = atera (4/1)  
     = yagon (4/1)  
 lлага = zauri (1)  
 madarikaziño = buro (3/1)  
 mandamentu = agindu (11/10)  
 martir = martiri (2/2)  
 meditaziño = gogarte (5/4)  
 memento = izpi (3/1)  
     = apur (3/1)  
 merezidu = merezi (4/3)  
 miserikordia = erruki (5/5)  
 mugidu = gar geiago emon (1/1)  
 obedile = esaneko (1/1)  
 obeditu = esana egin (1/1)  
 obra = egina (1/1)  
 ofendidu = -en kontrako okerrik  
     egin (1)  
 ofizio = zeregin (1/1)  
 okasiño = galbide (2/1)  
     = bide (2/1)  
 olgura = atsegintasun (9/2)  
     = poz (9/1)  
     = gozo (9/1)  
     = atsegin (9/1)  
 orañizo = eskaari (13)  
 pagatu = egin (2/1)  
     = atera (2/1)  
 paziencia = bake, on (1/1)  
 pelligru = pelleburu (2/1)  
 pena = neke (14/4)  
     = ala (14/2)  
 penatu = nekeak (izan) (1/1)  
 plenaria = oso (3/2)  
 pobre = (billox), uts (5/2)  
     = nekatutxu (5/1)  
 propositu = gogo (2/1)  
 sagradu = eder (1/1)  
 sakrifizio = eskini (1/1)

salbatu = zeruratu (2)	tentatu = deungerako puztu edo
= zerua irabazi (2)	okerrerako gantza eman
= zerura eroan (2)	(1/1)
= zerurako (bidean) (izan)	tokamentu = eskuka (1/1)
(3)	tranpa = zindo ta garbi ez ibili
= zerua izan (1)	(1/1)
= gorde (1)	triste = ilun (1)
sepultura = obi (7/4)	= biotza ilik (1)
= lurpean (7/1)	tronpeta = turrunta (1/1)
sosegu = epetasun, bake (1/1)	humildanzia = humiltasun (2/2)
tenplu = elexa (2/2)	humildu = auspez (2/1)
tentamendu = bekatu-bide (1/1)	zarratu = yo (1/1)

### 1.3. Badirudi taulak lagun diezaiukela ondorio orokorrago zenbaitetara iris gaitezen:

1.3.1. Alfabetoaren araberrako ordenak agertarazi du errokide bat baino gehiago ezabatzeko joera: *amatu-amore, bisita-bisitatu, deseo-deseatu, desobeditu-obedenzia-obedile-obeditu, erregu-erregutu, inozente-inozenzia, juzgau-juzgu, kondenaziño-kondenatu, pena-penatu, tentamendu-tentatu, humildanzia-humildu*.

1.3.2. Errokide horien ordezkoak ere errokide izan ohi dira beren aldetik: *laztan izan-laztantisun (AMATU)*<sup>22</sup>, *ikusikuste (BISITA-)*, *eskari-eskariak egin-eskaritu-eskatu (ERREGU-)*, *galdute-galdu (KONDENA-)*, *neke-nekeak (izan) (PENNA-)*. Honelakoan artean bereziena *obeditu* ingurukoei deritzet, Larramendiren etimologiak bermaturik bazeuden ere<sup>23</sup>, jada VBen proposatutako perifrasis moduko zerbaitez —*esanak (ez) egin*— ordezkatu bait ditu, hartu bidetik ilki gabe ez eta sustantiboa adierazteko (*esanekoa*).

1.3.3. Euskal atzizkia eramateak ez ditu *obedile, doloretzu* edo *amorezko* (ez neurri batean *beneragarri* ere) gorde, hots, alde guztietarik gainerako zalantzazko mailebuen modura, beraiek ere behin behineko bailira hartu izan ditu.

1.3.4. Orain artean esandakoen arabera, badirudi arbuiatua ez dela hitza, ezpada erroa<sup>24</sup>.

1.3.5. Bestalde, esanahikideak ere bat etorri ohi dira eman zaien ordezkoan: *beneragarri, erreberenzia = itzal; borondate, propositu, deseo, deseatu = gogo, gura; erregu = eskari, oraziño = eskaari; pazienza, sosegu = bake; dolore, pena = neke, ala; instante, memento = apur; sakonenetakoa bideren bitartez* —eta neurri txikiagoan baita *gantzaz* ere— adiera hurbileko diren *ejenplu, okasiño, konseju, tentamen-*

(22) Gainera bekio *amore: amodio* eta A235 *amatu: amodio*, errokidetasunez gain erabateko adostasunak ere badirela ikustearren.

(23) 1.3.11.2.ean xehetasun gehiago aurki daitezke etimologiadunen gorabeherez.

(24) Behin gutxienez, atzizkia ere: cf. *humildanzia* eta *obedenzia*, lehendabizikoa *humiltasun* bilakatzen dela kontutan harturik.

*du* eta *tentatu* biltzen dituen aldaketa da. Adibideoi aterabide beretsua izan duen *libratu* = *yagon*, *salbatu* = *gorde* kasua erantsi behar zaie.

1.3.6. Parentesi artean doazen zenbakiek hitz batek B-n usu ordezkari bera aurkitu duela erakusten digute; inoiz (batez ere *mandamentu*, *oraziño*, *estaziño* eta *errezaturekin*) behin eta berriz leku berean izenburu edo lelo gisara azaltzeak zeharo erraztu du eta eragin erabateko aldaketa. Horraino iritsi gabe, ordea, *denpora*, *induljenzia* eta *kondenatuk*, adibidez, agerraldi sakabanatuak izanda ere, ondorio esanguratsuak eskeintzen dituzte. Dena dela, mailebuen bilakaera ezagutzeko holako ordezkatzeko erregularrak bezain jakingarri dira *borondate*, *dolore* edo *bizio* bezalako ezabaketak, aski orokorrak taulan bistan denez, nahiz, diren arrazoiak direla medio, ordezkari ezberdinak izan.

1.3.7. Gogora dezagun taulan eman ordezeko batzu ezin ditzakegula, egia iluntzeko bildurrik gabe behintzat, haintzakotzat hartu, jadanik A-n bait zeuden mailebuaren aldamenean (ik. 1.1.1.ean adibide zenbait); B-n mailebua kendu besterik ez du egin, beraz. Gehientsuetan *edoren* bidez sortzen den egitura xeble bezain ezaguna, bidenabar Añibarrok bestek baino urriago erabiltzen duena, deuseztatu da, urriak urriagotzeko joera nabarmenarekin: A128 *promes* edo *botoren*: B135 *promesen*, A176 *estaziño* edo *geraldi santuak*: B185 *gera-aldi santuak*, A7 *induljenziak* edo *parkamenak*: B11 *parkamen guztiak*, A4 *meditaziño* edo *gogarte*: B6 *gog-arte*, A16, 17, 71 *gogarte* edo *meditaziño*: B19, 20, 81 *gogarte*, A110 *plenaria* edo *osoa*: B118 *osoa*<sup>25</sup>. Maiztasun beretsuarekin eta zen B-n ezabatu duen bikotearen (edo hitz multzoaren) lokarria: A178 *gogo ta borondatea*: B187 *gogoa*, A153 *erea, astia ta denpora*: B168 *erea, astia ta gogoa*, A85 *eskaria ta erreguekaz*: B95 *eskariakaz*, A167 *eskariak ta erreguak*: B179 *eskaariak*, A18 *erregutu ta sarritu eskariak*: B22 *eskariak egin*, A105 *zauri ta llaga*: B113 *zauri*. Azkenik, koma da A75 *propositu*, *gogo*: B85 *gogo* adibide bakarrean.

1.3.8. Bestetan ere (ik. 1.1.1.ean eman adibideak) ordezkoek ez dute zertan B-ko berrikuntza izan, A-n ere agerraldiren bat edo beste bait dute, lehendabiziko edizioaren hiztegi mailako desoreka eta zalantza adieraziz.

1.3.9. Halaz ere, anitzi buruz hiztegi ikerketa honen hurrengo ataletan hitzegin beharko dugu, B-n lehendabizikoz erabiliak bait dira hain zuzen; honen garrantzia goraiatu beharrik ez dagoelakoan, mailebu desagertuen ordezkoak orokorki deskribatzen saiatuko gara orain, irakurlea A-tik B-rako aldaketaren mamiaz hobeto jabe dedin:

1.3.9.1. Ordezkoen artean, taulan bertan ikus daitekeenez, zail xamar da Larramendiren hitzberri zalantzagabekorik idorotzen: asko jota *kantona* (DT s.v. *Himno*) eta *gogarte* (DT s.v. *Meditación*).

(25) Badirudi neurri batean *edoren* sistema baztertzearekin batera beste bide bat probatu nahi izan duela: hitz elkartuaren osagaiak ahalik eta argien bereiztea, alegia. Cf. *gog-arte* eta *gera-aldi*, A-ko *gogarte* eta *geraldiren* ordezkariak. Azpimarratzekoa da honelako egiturek ez dutela hitzaren lehenengo agerralditik kanpo zertan agertu, handik aurrera elkartearen benetan elkartua eman ohi bait du.

1.3.9.2. Halaber, eratorriak eta elkartuak oro har ez dira oso ugari: eratorrien artean atzizkirik erabiliena -TASUN xumea da (*anditasun, atsegintasun, epetasun, garbitasun, laztantasun, humiltasun*); -ALDI eta -ARIk agerraldi bina dute (*egotaldi, gerald, lotsari, eskari*) eta gainerakoak bakoitza bere erara moldaturik daude, inongo joera berezirik ez bitxikeriarik antzeman ezin delarik: *abegune, eskaritu, parkamen, sortuera, galbide*. Orobat elkarteetan (*eztabaida, gizon egite, bekatu-bide, bekatu-eza*), garai hartan itxaron daitekeenez batzuen eta besteen artean aski berri eta nolabait ausart direnak badirela egia bada ere.

1.3.9.3. Badirudi, beraz, *eternidade-betiraun* bikoteak irakatsia (ik. 1.1.1. atala) paradigmatikoa dela, hots, Añibarroren jokaera «ez erdal hitz gordinik, ez euskal hitz ulergaitzegirik» xedearen menpe dabilela. Hipotesi hau bermatuaz, sarri asko hitz tekniko baten ordeztu hitz arrunt bat (edo bi) imini du: *bertute = on, arrazoi = argi, erreztatu = esan, kondenatu = galdu, konzienzia = biotz, kriatura = gauza, kunpli = egin, pazienza = bake, on* etab. Aldizka ez du batere oztoporik izan itzulunguruz baliatzeko: cf. ETERNIDADE, SALBATU, TENTATU.

1.3.9.4. Oker genbilzke, ordea, beti errazenera jo duela ulertuko bagenu: hitz teknikoak maizenik maila bereko euskal ordainek alderatu dituzte, cf. *konzeziño = sorrera, enkarnaziño = gizon egite, estaziño = gerald, induljenzia = parkamen, okasiño = galbide* etab. Esan gabe doa, gainera, «erraz» zentzurik metaforikoenean hartu behar dugula, 1.3.9.3.ko aldaketek hitz teknikoen esanahiaren berpentsaketa sakona eskatzen bait dute agerriki, erdararen esamoldeak albo batera utzirik.

1.3.10. Honezkeroz, garbitasuna ez bide zen Añibarroren xede bakarra; agian ez eta garrantzikoena ere, zeren eta A-ko hitzen artean egin zuen garbiketa ez bait zen sekula ulerkortasunaren kaltean joan: esan bezala, ez du bere luma gehiegi hezi mailebuak imintzerakoan, ez kide ezberdinekin jokatzekoan, ez eta esaldiak aldatu edo luzatzeko. Bestek euskararen garbitasun galduari eresiak egiten ziharduten bitartean (ik. 1.eko sarrera), Añibarrok behintzat ulertu bide zuen apaltasunean mugituaz ere, irakurle arrunten neurrien barnean, Larramendi Maisuak aholkaturiko erdibide itxurazkoa lor zitekeela.

1.3.11. Beraz, aldaketak itxumustuan eginak ez direla zertan errepikatu ez dugu; aitzitik, ene usteko, ematen ari garen irudia mugatu beharko genuke Añibarroren benetazko jokaerarantz hobeto eta gehiago hurbiltzeko:

1.3.11.1. Esaterako, ez du ematen hainbat arrazoiengatik korrespondentzi taularik edo antzekorik erabili zuenik: bestela balitz, antzekotasunak baino gehiago berdintasunak idoro beharko genituzke aldatetetan. *Erregutu* hartuta, adibidez, ordeztu guztien azpian zantzu bera, erro bera dagoen arren, bat aukeratu eta horixe jarri errazenik zukeen Añibarrok; alabaina, kide berri ugarien aldamenen mailebua bera ere aurkitu dugu B-n.

1.3.11.2. Orobat, ez da ezin hiztegitan —berean ere ez— bereziki

oinarritu, bakanka baizik. DTari dagokionez, urrunegi gelditzen dela dirudi: Añibarroengan izan zuen eragin ukaezinezkoa ez da ELen arteko aldaketan bilatu behar, aurreragoko lanetan agian, eta zuzenean VBen baino. Esaterako, askotan aipatu ditugun etimologiek mailebu batzuen erabilera zilegi egin zutela hipotesi mailan ikerketen zai mantendu beharrean gauden arren, lehenago esan dugunez ustezko euskal etorkiak ez dira nahiko izan *amatu*, *obeditu* (ez *obedile*), *obra*, *zarratu*, *engañu* edo *kolpe* garbiketarik salbatzeko<sup>26</sup>.

1.3.11.3. VBekin arazo gehiago eta ñabarragoak ditugu: batetik, ezin ukatu aldaketa batzuen bitarteko zuzena izan daitekeela: *gogora enpeñu*, *konzeziño*, *miserikordia*, *obeditu*, *desobeditu* eta erantsi bekizkie 1.1.2. ataleko lehen dabiliko bi punduetako hitz guztiak. Bestetik, bertan agertzeak ez duela mailebu askoren lekua segurtatu kontrajarri behar diogu (cf. 1.1.2. ataleko guztiak). Holaxe gertatu da baita delako mailebua DTko sarrerako hitzei Añibarrok erantsia izan denean ere, cf. *baneria*, *entero*, *humildanzia*, etab.

1.3.11.4. Nolanahi ere, lan honen hasieran nioenez, Añibarroren gainerako idazlanak ikertu beharko ditugu hiztegia egin zuenetik EL berregin zuen arte zein hitz aski ikasi eta erabilirik zituen, diren itxurakoak direla, edo zeintzu (mailebu, batez ere) zeharo bazterturik utzi zituen VB dela medio; ikerketa hori egiteke oso zaila da VBen benetakoko papera mugatzen.

#### 1.4. Mailebu agertu berriak

Berezi nahi dituenarentzat, mailebuek beren artean makina bat bereizkuntza eskeintzen dituzte, taldea edo bakanka historiak eman dien bilakabidea dela medio. Batzu, adibidez, erabileraren erabileraz hizkuntza hartzaileari egokitu zaizkio, jatorrian zuten itxura, esanahia edo joskera aldatuz. Beste batzu, egokitze hortatik igaro gabe ere, literatura hizkuntzaren beharretarako erakarriak izan daitezke, ordea. Dena dela mailebuek, bakoitzak dagokion eremuan, epe labur edo luzeagoan gal dezakete beren berritasuna, beren arrotzatasuna, eta hizkuntzan eskubide guztiekin bizi.

Alabaina, eta bereziki bigarren moztatakoei nagokie, patuaz gain, erabilera zabalkundeaz gain hiztegitik eta inguruko epaiak erabakitzailerak gertatu ohi dira (hala nahi, behintzat), batez ere mailebatzea, den arrazoiengatik dela, biziki ugaria, gehiegia apika, izan denean; bestela esanda, garai batean hizkuntza batetik hitzek beste baten hiztegia desorekatu dutela sentitu den orotan teoriko zenbait mugak (beste zenbait murrailak) jartzen hastea itxarotekoa da.

Honela, XVIII. mendean Larramendik beregan hartu zuen lehen dabilikoz erlijio literaturan neurrigabe sartzen ari ziren eta euskara

(26) Hipotesiaren alde, B-n erantsi mailebuetarik lauk Larramendiren etimologia dutela aurreratu beharrean gaude, ik. 1.4.

literatur hizkuntza bilakatuko bazen sartu beharko liratekeen mailebuak mugatzeko eta hautatzeko zeregina; hortan, euskal itxurakoei harrera ona egin zien, batzuei jatorriz ere itxura zeukatelako (eta orduan etimologia eman zien) eta besteei —jakinda edo jakin gabe— jadanik euskal fonetikari egokituak zirelako; baina baita beharrezko zitezkeela zeritzen bestelakoei ere.

*Esku-liburuak* Larramendiren lana hasiera baino ez zela izan erakusten digu: oinarri teorikoak eta lehenengo urratsak eman zituena, alegia, Añibarrentzat oraindik daitezkeen mailebuak bi eratakoak bait dira: batetik, behinbehinekoak, zuzenkizunak, arreta eskasaz isuri direnak; bestetik, zilegi eta erabilgarriak. Hiztegitik bezala, badirudi bere maisuaren hautapenak ere bahetu zituela eta, bestalde, hark bildu ez zituen mailebu zahar onargarri zenbait erantsi (cf. 1.3.11.). Idazle bezala, berebat, neurri estuak artu zituen mugak ez gaintzeko, 1.1. ataleko mailebu uxatuek frogatzen dutenez argiro; 1.2.koen artean, aldiz, hitza bera ala erabilera zabalegia baztertu nahi ote zuen zalantzan gelditzen zaigu, hein bateraino bederen. Aitzitik, mailebu uxatuek bezainbateko froga, edizio batetik bestera ikutu gabe igaro direnek ematen digute, hots *elixa*, *meza* edo *angeru* bezalakoek, enparauekin gertatu dena ikusita nahita utzi dituela sinistu behar bait dugu.

Gogoetok B-n erantsi zituen 32 mailebuak oro<sup>27</sup> arrazoi sendoengatik (berriz nahita, hortaz) aukeratu zituela pentsarazten digute. Egia da batzuek (*atrapau*, *errebes*, *kerella*, *lantza*) Larramendiren etimologia dutela, guztiak (*altu*, *dizipulu*, *jeneral*, *yentil* eta *mental* salbu) VBen onarturik daudela eta baita euskararen jiteari egokitu zaizkiola, -oz amaitzen direnak -urekin, r-z hasten zirenak *err*-ekin etab. Baina, irakurleak gogoratzen bide duenez, berdin ezabatu dira honelakoxeak A-tik.

Orduan galdera da zeren ordez ezarri ote diren, alperrikako mailebuez garbitutako idatzi batean agertu ahal izateko. Bertatik datorkigu, hain zuzen, bilatzen ari ginen arrazoi sendoa: bakan batzu kenduta (52 agerralditatik 11) segidan datorren zerrendako mailebuak ez dira A-ko ezein hitzen ordain gisa sartzeko, Añibarrok B-n gehitu zituen atletan edo luzatu zituenetan —oro har estilozko aldaketa handiak jasan dituztenetan (cf. 5.oharra)— baizik. Bideabar, honetaz jabetzarekin batera beste zerbait argitu zitzaigun: besteetan ez bezala, zati honen prestakuntzan sarri ez dugu jakin zeintzu jo zitzakeen Añibarrok mailebutzat, hizkuntzari buruzko orduko ezagutzaren arabera, eta zeintzu (*diru* da adibiderik argiena) nekez erdal jatorriarekin lotu; erantzuna, *a contrario* bada ere, Añibarrok eman dien tratamendua da: honek esaten digu *obedile*, adibidez (cf. 1.3.1,2,3), mailebuen artean kokatu beharra dagoela eta, alderantziz, atal honetako edozein hitz, salbuespenak salbuespen, hemendik kanpo utz genezakeela, izan ere hitz jatorrak

(27) Gogoratu bedi ezabatuak 85 izan direla.

bailira erabili bait ditu hiztegiarekiko hain harreta handia antzematen diogun bigarren edizioan.

- ALTU: «b.g. goia, goicoa, goratua; n. goitia, goititua». B118 *Egercituuen Yaungoico altua*: A110 *Eguersituuen Jaun ta Jangoicoa*.
- AMODIO: (DT). B172 *amodiozco*: A161 *amorezco*; B176 *amodio*: A164 *amore*; B247 *zu-ganaco amodio su ta gar andico bat*: A235 *Zu ametaco gurari erexeguín bat*. Ik. 1.1.2.1. AMATU eta 1.2. AMORE.
- ATRAPAU: DT «el Francés y el Español vienen del Bascuence Labor-tanó *atrapa*, *atrapatu*, y este de *arrapatu* o *atzaparratu*, coger con la zarpa». «Coger al que se escapa: b.g. atzitu, achitu, atzemon, atrapau». B5: Ø (s.).
- BATEATU: (DT). «c. bateatu, batayatu». B214: Ø (n.).
- BERBO: (DT). «Verbo Divino: c. Verbo Divinoa, Jangoicoaren Verbea, g. adititza». B182(5): A172 *Verba*.
- BINAGRE: (DT). «c. binagrea; g.n. ozpiña, arlacha». B221: Ø (n.).
- BURLA: (DT). «c. burlea; g.n. iseca, barrea». B220: Ø (n.).
- DIRU: (DT). «c. dirua». B151: Ø (7.m.).
- DI(S)ZIPULU: «c. icaslea, escolacoa». B182 *bere discipulu onai*: A172 *bere Icasle Anaje onai* (p.); B215(2), 216, 217: Ø (n.).
- ERREBES: DT: «Esta voz es del Bascuence *errebesea*, *erabesea*, y se compone de *era* forma, modo, y *bea* inferior». B218: Ø (n.).
- ERREMEDIO: (DT). «c. erremedioa, oscaia, osacaia, osacarra, osasungueia». B135: Ø (1.m.).
- ERROMERIA: (DT). «c. erromeria; n. bella». B140: Ø (4.m.).
- FIESTA: DT *fiesta*. «Fiestas movibles: c. fiesta dabillac, colocac». B133: Ø (1.m.); B144: Ø (5.m.); B149: Ø (6.m.).
- GANADU: (DT). «Ganado en general: b.g. aberea; c. elia, ganadua, acienda. Ganado vacuno: ganadu gorria, cabrió y lanar: ganaducea». B151: Ø (7.m.).
- JENERAL: «c. guztirocoa». B28 *becatu guztien confesiño general eguiazco*: A24 *guztien confesiño eguiazco*; B78 *confesiño generala*: A69 *confesiño guztirocoa*.
- YENTIL: «c. fedebaguea». B218 *yentil fedebaacoaren*: Ø (n.).
- KARTA: (DT). «c. carta». B153: Ø (8.m.).
- KERELLA: DT. «Es voz Bascongada, *querella*, *querellea*, de donde se tomó el Latín querela y se extendió a explicar la queixa, viene de *que*, *quea* humo y *erellea* sembrador, y la acusación lo es de el humo y deshonor con que se denigra al acusado». «c. querella, llea». B144: Ø (5.m.).
- KREITU: «Infamar: c. besteren fama galdu, famabaguetu, creitua galdu, quendu», «Infame: c. infamea, creitu gabea, bagacoa, bacoa». B153: A138 *fama* (ik. 1.1.2.1.); B153(3): Ø (8.m.).
- LANTZA: DT. «es voz antiquissima Española, y Bascongada *lanza*, *lancia*, y se compone de *lan* trabajo, y *cia* punta aguda, y se le dió el nombre por el trabajo que cuesta el manejarla, á diferencia de la *azona*, *azagaya* &c.»<sup>28</sup>. «c. lanza». B209: Ø (o.); B222, 226: Ø (n.).
- MANDATU: (DT). «Recado, mensaje: c. mandatua». B146: Ø (6.m.).
- MENTAL: «c. gogozcoa, adimentuzcoa, centzuzcoa». B89 *gogozco oraciño mental*: A79 *gogozco Oraciño*; B214: Ø (n.).

(28) Mogelek etimologia ezberdina aurkitu uste zion lantzari: ik. R. SEOANE «Misceláneas históricas. Correspondencia epistolar entre D. José Vargas y Ponce y D. Juan Antonio Moguel sobre etimologías vascongadas» *Euskal Erria* 1911-12.



MUTU: (DT). «c. mutua». B45 *abere mutuac*: A39 *Criaturac*; B148 *abere mutuagaz*: A135 *abere-animaliacaz*.

OBISPO: (DT). «c. obispoa, Christauzaina, zaia, arzaia, Apez o Abade nagusia». B117: Ø A110.

PONTIFIZE: B217(2): Ø (n.).

SINU: (DT). «c. sifua, señalea, ezaugarria, igargarria». B135: Ø (1.m.).

SIKADU: (DT) «c. sicatu, leortu, agortu; n. idortu». B197 *Beronicac siketárren*: A191 *Veroniqueac garbi ezquero* (p.).

SOLDADU: (DT) «c. soldadua; n. gudaria». B217, 219: Ø (n.).

TABERNA: DT *daferna*: «c. ardandegua. taberna, nea, ardanechea». B144: Ø (5.m.).

TESTAMENTARIO: (DT). B142: Ø (4.m.).

TESTAMENTU: (DT). «c. atzenaia, testamentua, azqueneco borondatea». B140: Ø (4.m.); B215: Ø (n.).

TESTIGU: (DT). «c. testigua; n. lecucoa». B218: Ø (n.).

Azkeniz, salbuespenak ere oso interesgarriak direla esan behar:

a) MENTAL: adibidea ikusirik, berehala konturatzen gara VBen proposatzen zuen *gogozko* hitza ez duela alboratu, eta bai mailebua txertatu ulerpena hobetzeko, antza. Gertakari honi *yentil fedebaaco* pareka dakioke, A-ko erreferenterik gabe, ordea. Orobat bieci batera, *Nekea arindurikeko* adibide ugari: 4 *paciencia eroapena*; 8, 19 *discipulu icaslea*; 14 *inocente errubague*, 20 *biñagre ozpin* etab. Badirudi neurri labur batean honelakoez baliatu zela *edo* eta *etaz* osatu ohi ziren bikoteen ordez (ik. 1.3.7.).

b) AMODIO: beti A-tik kentzeko joera handia izan duen *amore* eta *amaturen* lekuan azaltzen da. (Cf. 1.1.2.1. eta 1.2.).

c) BERBO: bizkaitar bezala ausartegi bide zeritzaien *berba* itzulpena ordezkatzen du hitz honek, VBen zeukan beste aukerara joaz.

d) DISZIPULU: *icasle anajeren* ordez agertzen da eta, itxuraz, atzera egin du; baina kontutan har bedi aldaketa poesian gertatzen dela, horrek eskatzen dituen silaba mugekin. Bestalde, DT eta VBko lekukotasunaren aurka, *diszipulu* eta *ikasleren* arteko kidetasuna bertan behera doakio Añibarrori zehazki «Jesusen Diszipuluak» aipatu nahi dituenan; holantxe *Neka arinduriken* ere, non, gorago ikus daitekeenez, biak batera —edo soilik mailebua, cf. 36, 51, 55 etab.— erabili bait zituen.

e) JENERAL: mailebu honek DTko hitz berria den *guztirokari* lekua kendu dio, *betiraun* eta kideei egina (ik. 2.1.4.) errepikatuz.

### 1.5. Mailebu sarriagotiak

Urrituen tamainara iristen ez badira ere (cf. § 1.2.), baditugu aldeantzikoko gertakari interesgarri bakan batzu:

AZOTE: § 1.4.ean esana indartzera dator, A-tik B-ra arazorik gabe iga-

rotzeaz gain, B-n ia halako bi erantsi bait ditu Añibarrok Jesusen Pasioari buruzko ataletan (guk *n.* deiturikoan) bereziki, A104(2), 107, 180, 181, 212, 221; B112(2), 115, 188, 189, 209, 212, 219(2), 224, 226, 234(2).

**DONTZELLA:** A-tik B-ra *nc>ntz* aldaketaz euskal itxura handiagoa (edo hobe, erdal itxura gutxiago) aurkezteaz kanpo (A218 = B232), hiru aldiz erantsi izan da: A228 *Virgiñeen Virgiña* = B240 *Doncelleen Doncella*; A228 *loi bagua* = B240 *dontzella*; A229 *Virgiñeen* = B242 *Doncelleen*. Dakusgunez, *birjinaren* ordaina da, Mariari dagokion izen propioa ez den bakoitzean; hola proposatzen du, hain zuzen, VBek: «Virgen: c. doncella, virgiña, ñea», ziur aski Larramendiren etimologiak (ezen ez DTko sarrerak) eraginda: «Doncel, donceles, (...) Viene de el Basquence *doain el, doainez el*, que significa llegarse lleno y adornado de prendas, quales eran aquellos jóvenes: *doain, doaiña*, prenda, dote, y *el, eldu*, llegarse, asirse».

**ESPERANTZA:** A40 *ichadon* = B45 *esperantza*.

**SERMOI:** A78 = B88; B214 < Ø (n.); A99 *predicaldia* = B108 *sermoi*.

#### BIBLIOGRAFIA ETA LABURDURAK

A = *Esku-liburuaren* 1802ko ed. Ik. AÑIBARRO.

AÑIBARRO, P. A., *Esku-liburua*<sup>1</sup>, La Lama, Tolosa 1802.

———, *Esku-liburua*<sup>2</sup>, La Lama, Tolosa 1821.

———, *Esku-liburua*<sup>3</sup>, La Lama, Tolosa 1827.

———, *Voces bascongadas diferenciales de Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra*, u.g. (c.1800?). A. L. Villasanteren ed., Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo 1963.

———, *Nekea arindurik*, B. Urgellen ed., ASJU XXI-1 (1987).

———, Ik. VILLASANTE

B = *Esku-liburuaren* 1821eko ed., ik. AÑIBARRO.

DT = *Diccionario Trilingüe*, ik. LARAMENDI.

EL = *Esku-liburua*. Ik. AÑIBARRO.

LAKARRA, J. A., 1985a, «Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan» ASJU XIX-1.

———, 1985b, «Berriz Larramendiren segizioko zenbaitez» ASJU XIX-2.

———, 1985c, «Literatur gipuzkeraz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)» ASJU XIX-1.

———, 1986, «Burgosko 1747ko dotrina: I. Testua eta oharrak» ASJU XX-2.

LARAMENDI, M., 1745, *Diccionario Trilingüe*, Donostia.

MITXELENA, K., 1984, «Aurkezpena» in *Hauta-lanerako euskal hiztegia*. Ik. SARASOLA.

———, 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madrid.

RONCAGLIA, A., 1975, *Principi e applicazioni di critica testuale*, Bulzoni, Roma.

SARASOLA, I., 1984, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, GAK, Donostia.

———, 1986, «Larramendiren eraginaz eta» ASJU XX.

TAV = *Textos Arcaicos Vascos*. Ik. MITXELENA.

URGELL, B., 1985, «Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*» ASJU XIX.

———, 1987a, «*Esku-liburuaren* grafi-aldaketak», ale honetan.

———, 1987b, «Añibarroren inguruan zertzelada batzu», 1986ko E.H.U.aren Udako Ikastaroen agiritan agertzeko.

VB = *Voces bascongadas*. Ik. AÑIBARRO.

VILLASANTE, L., 1963, VBen ed. eta aurkezpena.

———, 1983, «En torno a una carta, hasta ahora inédita, del escritor vasco PP. de Añibarro», *Euskera* XXVIII-2.